

KarKara

65A

65. zenbakia

Otoño eta Atako aldizkaria

1997ko azaroa



MARINA LERTXUNDI

Salatxo abesbatzaren zuzendaria

5. literatur lehiaketa

ORIO / AIA

OINARRIAK

- 1 'Euskaraz Gazte' 5. literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2 Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3 Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4 Lehiaketan parte hartzen dutenek oriotarrak edo aiarrak izan behar dute edo, bestela, Orion edo Alai bizi.
- 5 Lehiaketan parte hartzeko bi maila izango dira: Gazteak (14 urtetik 18ra arte) eta Helduak (18tik gora).
- 6 Lanen luzera librea izango da.
- 7 Lehiaketak bi modalitate izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8 **Lanak aurkezteko era:**
Lanak makinaz idatzita aurkeztu behar dira.

Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituena eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.

Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.

- 9 Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso modalitate bakotzean.
- 10 **Epañimahaia.** Epañimahaia Orioko Udaleko ordezkari batek, Aiako Udaleko ordezkari batek, KARKARA aldizkariko kide batek eta Euskaltegiko irakasle batek osatuko dute. Epañimahaia hutsik utz ditzake sariak.
- 11 **Lanak aurkezteko tokia eta epea.** Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxeen aurkeztuko dira. Abenduaren 19a izango da azken eguna.
- 12 Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

SARIAK

GAZTEAK (14-18 urte)	HELDUAK (18tik gora)
Ipuinen modalitatea	Ipuinen modalitatea
1. saria: 20.000 PTA	1. saria: 35.000 PTA
2. saria: 15.000 PTA	2. saria: 20.000 PTA
3. saria: 10.000 PTA	3. saria: 15.000 PTA
Bi akzesit, bakoitzak 5.000 PTAKoa	Bi akzesit, bakoitzak 10.000 PTAKoa
Bertso edo olerkien modalitatea	Bertso edo olerkien modalitatea
1. saria: 20.000.- PTA	1. saria: 35.000.- PTA
2. saria: 15.000.- PTA	2. saria: 20.000.- PTA
3. saria: 10.000.- PTA	3. saria: 15.000.- PTA
Bi akzesit, bakoitzak 5.000 PTAKoa	Bi akzesit, bakoitzak 10.000 PTAKoa

Karkara

Kultur etxea
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
1.300 ale

Zuzendaria
Miren Etxeberria

Erredakzio taldea
Miren Etxeberria,
Iñigo Fernández,
Jakes Goikoetxea,
Ana G. de Txabarri,
Ana Iturain
Iñaki Iturain,
Nere Manterola,
Ainara Peña,
Javier Zubeldia

Aiako erredakzioa
Eli Lasa

Publizitatea
Miren Etxeberria

Kolaboratzialeak
Aerobic taldekoidea,
Ricardo Uzkudun,
Zaragueta Eskola Pùblica

Argazkiak
Ana G. de Txabarri

Azken orrialdeko irudia
Jose Ortiz Etxagueren
argazki moldatua

Banatzalea
Miguel Ángel Sanz

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)



Euskal Jauritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

4 GUTUNAK

5 HERRIAN GALDEZKA

Zer iruditu zaizu Korta Orotik joatea?

6 HERRIKO KONTUAK

11 KIROLAK

14 IRITZIA Rikardo Uzkudun

15 AIAKO KARKARA

ELKARRIZKETA Maria Luisa Irizar

19 ELKARRIZKETA Marina Lertxundi

22 GAIA Elbarriak. Oztopo eta ezinen gainetik

24 DENETIK PIXKA BAT

Euskaldun berriak. Maribi Morey

Liburu kritika. Abere madarikatuak

Soziedadak. Alkar elkartea

Zorionak eta zoriotxarrak

Jaiotakoak, hildakoak eta ezkondutakoak

Orain dela 25 urte

Nire honetan. Badoala, badoala gure Jaungoikoa

Kanpoan daudenak. Angeles Lertxundi

29 KOLABORAZIOA Zaragueta eskola

30 AZKENA

1997KO PUBLIZITATE PREZIOAK

Modulo bat.....	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako
balio dute. Publizitatea urteko
zenbaki guztietan jarri nahi dutenei
% 10eko deskontua egingo diegu
prezio hauen gainean (urtean
hamar zenbaki argitaratzen
ditugu).



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

Oriotik Castrora

Azken zazpi urteak eman ditu! Oriol; urte bete beteak izan dira. Orain eskaistza bat iritsi zait Castrorik, kiro protektu berri eta filtragarrir bat aurrem ateratzeko. Zailantza handiztan ondoren, erronka onartzea erabildi du. Sekula es nuen pentsetuko erabaki hori hartzera horren gogorra egindio zitzaidantik.

KARKARAREN bidez eskeritu egin nahi dute, baiotz biltzatzen. Orioko herriari, hemen izan noizien bitartean jaso dudan laguntza ikaragarria eta izan dudan giro ezin hoben. Udalari eta Arraun Etxarteari. Baskideetako arraunkariet, eguna joan, eguna etorrir, nirekin eskuz esku lantzen jarduneko guztiak. Zuek tam zorete Oriok imazaitako estropada eta banderen protagonista mugusimak.

Zazpi urte honetan garbi ikusi duit Oriak bodoikieko guztaak ondo egiten. Lortutako garai-penei garbi erakutsi dute hama egurero gogotik egin eta goror eta jira soztuz gero, Orioko gazteek urrunetan dureko partizan egoten badouazuelo. Horren proba dira arte hauetan nabarmenak: 143 banderak —buletan 56, trañeran 28 eta trañeruan 59—. Kontxako Jaru banderak, mobidea eskuratuak 145 dominak, —urrekoak 68— eta zortzikoak leu urtez segidin Euskaldiko eta Espainiako Txapelketetan trabazi izana.

Animatu egin nahi zaizkietet hemendik aurrera ere orain arte bezala lanean segitako, serio eta zain burizi gogor egitez, orain artekou hobetzeko.

Mila esker guzti!

JOSE LUIS KORTA
(KARKARA EUSKARATUA)

Lore baten jaiotza

— Aspaldiko. Zer moduz? Zenbat denbora elkar ikusi gabe?

— Motel, badakik; oraindore, etorkizunaren eta lanetik etxera; betikoz monotonien mangilda, txango berririk gabe.

— Berriak alpatu dimanola-eta, ez dira jakin gure herri matxie honetako booz-a, eta?

— Zer duk, boda, booz hori?

— Ahesbatzen herri bat sortzekoan dabilizale. Zuzendaria kantokoa omen dute; eta emakumea, gainera.

— Ez esan. Hamaita ikusteko jaloak gaixtuki!

— Zer deia eta horrelako harrena komikoa?

— Herri honetan zerbitzi hasten edo sortu eta harrelan geratzen delako, normalean;

— Neska, neska! Ez hadi horren ezkerra izan. Boditun inide batzuk inuspen luzeengoa izan duteenak, eta oraindik segitzen duteenak,

— Bat, batin zenbat? Eskuko hatzeken konta itzbeztenak.

— Bueno, batna horrela hasten ditun guzak, hutssetik.

— Herriak izan diktak, lehen emi, abesbatzen eta ondioriek nahiko penagarrilek izan dituk; haserrek, ika-mikak... Bene-benetan esotea nahi baduk, beldurra ematen zidak herriko ere abesbatza barean parte hartzen.

— Bat, batna onango abesbatzak badit beretzigurri nubarmena; zuzendaria kantokoa, amen dun, eta karraitzailek ere berriak onango ale diren entzun diran. Boda, nik baditut holako

grina abesbatza horretako kide izateko. Horrela, eguneroko monotonia harretzeki irteko aukera onango dugu. Zer? Animatuko al gatzuri?

— Ez zidak, motell Esan bezala, ikaro ematen zidak, lehen ere ez boinen oso oso esperientzia polita. Iruan zuen bitartean, ondo posa nizu, baizik gero...

— Bueno. Gehiago hitz egin beharrak ez zagon. Jende berria dute: gatzera eta ez horren gaztea... Bihar han elkar ikusiko dugu.

Elkarritzkeria hori geritako zentrik kau arte igaro dira. Orain Salatxo abesbatzak lau arte bete ditu. Martin Lertxundiren zuzendaritzapean eta ez da burumotur gelditzen geroari begira. Lau arte honetan 30 bat kontzeta eman ditu Euskal Herriko, Italian, Frantziako eta Kazahkistan. Leku guztietan bezala, nahiko gorabehera izan ditu, batzak beti jakin izan du arazo guztiek murriz egiten. Arazoen oipausa ditugunez, momentu honetan daudukoa hau da: gizonezko nhosak jolta ditugu. Baina, lehen esan bezala, ourre egindio dugu arazoko hori, gure abesteko zukututuna eta grinari esker. Bestealde, Salatxo abesbatzaren lehen garrantzitsueretakoak da udin desberdinatasun handia dagoela kideen artean eta, hala ere, denak oso ondo kongontzen garela; gure desberdinatasunekin, baita elkarren errespetuz.

Gure asmoa Salatxo abesbatzari zoriontz ematea da. Lau arte honetan egindakoengatik; eta, horrela gabe, animoak ere ematea etorkizuneko dituen asmo eta gogoi eutsi diezaten.

ENEKO ETA MARIE

Txinparta bizirik

Peritsatzen duit Orioko herriarazunen proiektu orloiarren eta herrira etorritzen direnen ahotan ibiliko dela. Zer geritako da Oriorekin? Izan berria ere juri beharko dugu, eta? Zer moduz: "New York City"? Horrela gureetan etorritzen diren urtak ondo alertuko dute. Eta, hainbeste milioko obra egun ondoren, mapan agertuko al da? Jakin nahi duit noren idea izan den priezku: "monstruo" hori? Eregerendunak egin al da? Agian inoiz ez dat erantzunak txango.

Beti peritsatu duit Ori oso herri polita dela, teknika, batina bista zorrigarririk dituena. Karpoan ibilia nahi eta toki politik ikusi ditzak, baita Oriko herrialdekorik ez dago inon.

Persigarria da hainbeste milioi guztietzei hormigoz betetako herriarazun bat egiten. Ez al zen hobe edifieziaz beti beharraren hobetza? Zenbat hormigotz tono behar dira? Zerri gara guztiak txorrotatzeko? Horrela jarrutatz geru hagai urtetan ez dugu mendi sanorik txango, ez eta zahaitz berderik. Hormigoz betetako herriak txango ditugu, mundu artifizial horri batzuen bizi gara. Eta hori zergatik? Botere diatenek nahi datena egiten dutelako. Baina, herriarrek ez al dugu heterik? Azken hitza ez al da gurea? Zer egin dezakegu?

Txinparta tabernamur kasua ezaguna da Orien. Uxora hasierako askak perentsatzea zuten ilegalak ginezia, batna zein da hemen ilegal? Txinparta hameiset urtez ireki dugu, niretzat bigarren etxera da, eta bestie askorentzat ere

ba. Zer egindio dugu Txinpartako giroa mani dugunak? Gazteenetako lekuak juri beharraren, kentzen, hau da martxa hautz Ztierik ere ez dugu-eta!

Ez dat imagintzen udala bat Txinparta gabe. Zahartutako dago, beina biziotsuna du, jendek identifikatuta sentitzen da bertan. Beste Txinparta bat nahi dugu, dia goen tokiko berean, hondartzan, itsasotik gertu, mendil ondoan, tokiko ezin habeatz Txinparta biziak!

AINARA AGIRRE

Ez da berandu

Azkeneko KARIKARA irakurri ondoren, azkenetik izan dugu herriko handartza inguruko plangintzenetik buruz, jendek dituen mesedantza eta kezkak somatzeko.

Plangintza horren sorrean HBko zindegia txente tokentu zituztak eta luzeegia litzatole oztzea nolako mesprezu eta errespetu falta jasan behar izan ditugun, hasiera-hasieran, gure kritika, zulantza eta proposamenak turkezko ditugunean. Denak konstituzien gara plangintza horren erregina handia txango dugu Orioko elkartuzuzerenzat; eta, horrexegaitik, ustez esaten dugu herriurrek eskuibideen datela, berik erreibit giztak aztertu eta, ondoren, beren irizia konstituzi hornutz txan dazin.

Argi dago gaur egungo udal agintariek ez dutela moleko berondatzerik beren interes espektakularrean oinarriaren herriarren eskuibideak kontuari hornatzeko. Horri horrela izanda, urazoa kezka ditugun oriotarren artean dago. Zer egin dezakegu heren txikikeraren surrentz? Gauza ni gara ekimen boteratu bat sortzea, izen edo etiketen gainerik? Nik usle duit gizak eta udal agintarien jarrera merezi dutea zerbaiz egitea eta bokotza bere aldetik kritikatzentz jardun beharrean, zerbaiz egin beharrak dagoela herri honen geroz txikitzasunetik eta modu atseginean jardutek.

EMETERIO IRIBAR

Orioko EAren oharra

Urriaren 21ean, Udal Plenoen ezohiko bilkunen geritakoak ikusita, Orioko EAren batzorde eragleak puntu hauetan planteatu nahi dute:

1.- Udalak osutzen duten alderdi politikoak orddezkariek informazioa jaso behar dute norberak mazio bat aurkezten duenean.

2.- Aurkezten dieren mazioek behar bezala akreditatutako eragileak jaso behar dute, norbanuak edo teliferen batzen (zerperarekin, tramilean) normaltasunez egiten oладин.

3.- Aurkezten dieren mazioek, akreditatutako eta beharrezko sinadurez lagundutako datozenetan, plenari pase behar dute lehenbizilehen, aztertu eta bezkutatzen txatoko.

Orioko EArenetako importandea da, elkarbizitzera ihesetako, herrela aurkeztutako mazioek beren hidea normaltasunez egiten,

EAREN BATZORDE ERAZINKORRA



Zer iruditu zaizu Korta Oriotik joatea?

Ustekabean harrapatu gaitu berrialc: Orioko kluba utzi eta Castrora doa Joxe Luis Korta.

KARKARAK jakin nahi izan du zer iritzi sortu dituen herrian albiste horrek eta, herritarren ustez, nolako aldaketa ekarriko dion klubaren martxari.

AINHOA ZUMETA

18 urte

Niri pena handia ematen dit: Kortak aldegiteak. Onori amazuean asko aportatu baitio herrian eman dituen urteetan.

Kubean berak utzitako zulua betetzen kostat egingo dela iruditzen zai barra, halu ere, arraunlanek jakingo dute aurrerat egiten.

IÑAKI PUERTAS

27 urte

Nik ez diu nahi Korta joatea, oso gustokoa dut eta, entrenatzaleen onera da. Baino seguru nago, Korta jasaten baidi ere. Oriok beldi inazki zuela estropadetan, onenak gareliko.

Beraz, ammosik eman nahi ditzak arrauriaz: Aupa Orio!

MARTZELINO PEÑA

74 urte

Kortak aldegitea arronazioa eta pena eman dit, gauza biak batetan sentsitu ditut.

Klubarentzat atzerakada handia izango da. Korta bezala amari kontuko guztiak, ondo emailea oso zaila da eta.

KANDIDA ARRUTI

49 urte

Nire ustetan hem guztiz kartu du pena, baina ez zait iruditzen Korta ordezkaezina denik. Halu ere, zaila zen hemendik, joates oso baldintza onetan zegoelako; ez nuen uste egingo zuenik.

Konfianza handia dut arraunlanengen eta amoro handia; eman nahi ditzak.

Orioko Ogia



bai-ondo

Supermerkatua

Telefonoa: 83 47 50

ertza
Usaindegia
Telefonoa: 83 09 29

iTZiAR

Kirolak

83 31 03

AZKUE

(Itsas-gaiak)

Eusko Gudari, 12
83 25 55

Agur Korta, agur

Jose Luis Korta, us-tekabeen, joan egin zaigu. Utz egin gaitu. Eta oraingo honetan, 1972an ez bezala, garbi dago joan dela: ale-gia, ez duela inork bota.

Aldarean, hantxe zain, eta nobioa ager-tzen ez zion andrea-gaia bezala gelditu gara oriotarrok: momenturik zoriontsue-nean, abandonatuta. Kolpe gogorra izan da. Traineruetako mun-duko entrenatzallerik onena eta profesionala geneukan; eta, ustez behintzat, Korta klubik onenean ze-goen, kuadrilarik one-narekin, lan-baldintza ezin hoberekin, direktibo guztiek alde zi-tuela eta herri ia osoa txaloka.

Baina ezkontzak ez du funtzionatu. Orioko Arraun Elkartea oso egoera zailean gelditu da; izan ere Jose Luis bera baitzen klubaren ardatza.

Edozain arraunleri galdera asko burutu-tu zuizkio: Zergatik joan ote da Jose Luis? Diruagatik? Anaiu Castron duelako? Kir-rol erronkagatik? Zenbateraino eragin ote diote Orion omen dituen etsaiek egin omen dizkioten aluke-riek? Aurten federazio-



Korta arraunariekin Bermeon, hango marka hautsi eta ligako bandera irabazi zutenean. Ez dugu berriz horrelako argazkirkirik ateratzeko aukera izango. (KARMELONEA ARGAZKIA)

etako direktibo inutil batzuek egindako bidegabekeriek, batez ere Orio kalteku dutenak, zerikusia izan ote dute erabakian? Horiek galderak dira. Erantzunik ez daudagu. Baino garbi dago Jose Luis ez dela tomtoa. Badakigu, berak esanda, Castron Orion baino diru gehixeago irabaziko duela. Badakigu Castron goraka egitea erraza duela, hondoa jota baitaude, bera etorri zeneari oriotarrak geunden bezalaxe. Orion, berriz, nekezegun zezakeen gora, dena irabazia baitzuen. Lortutakoari eustea besterik ez zitzalon geratzen. Baino hori ere ez zuen

erraza. Oriotarrena zen Kontxako kuadrilen artean zaharrena. Orioko traineruak berrizte-lana eskatzen du. Eta hori beste norbalitek egin beharko du; Jose Luis ez.

Korta arraunari one-netakoa izan da eta entrenatzallerik onena da, emaitzei dagokienean behintzat. Profesionala %100 eta arraun mun-duaren alde gehien egin duena, arrauna bizi egiten baitu eta dena eman bere alde, gorputz eta arima. Egunen batean arraunketa mundutik aitorpen eta omenaldi handia egin beharko diote; zor zailo. Baino kolore bat sentitu? Hort

besle kontu bat da. Asko izan ditu soinean: horia, urdina, berdea, marriona, horia berriz, orain gorria, eta hurrengoa? Auskalo! Korta profesionala da eta dirua ordaintzen dioten kolorea soinean jarri eta aurrera egiten du.

Arraunzaleoi bestelako galderak ere sortu zaitzigu, eta hauek etorkizunari buruzkoak dira: zein izango da Orioko hurrengo entrenatzailea? Eta instalazio-tako arduraduna? Zer kirul-politika izango du hemendik aurrera klutzak? Galdera hauek, jakina, erantzuna behar dute; eta azkarra, galera. Ez daudate lan

makala arraun elkar-tearen ardura duten oriotarrek. Asmatu ahal dute erabakietan!

Kortak erronkaren aipatzen zuen Castro- rajoateko. Erronka, benetako erronka, klubak dauka. Sekula buino gehiago behar dute, orain, herritik armun-zale guztion laguntza, mailari eusteko.

Oriok, Korta etori aurretik, 25 bandera zituen irabaziak Kontxan eta Korta Joan endoren ere segituko du irabazten. Kontxako azken bandera hamalau gizonek, eta laguntzen izan dituzten guztiek irabazi dute, eta batek ez beste guztiek Orion se-gitzen dute.

Lau urte barru ehun urte beteke dira Oriok Kontxan aurreneko bandera irabazi zuen-tek. 1901ean balea ha-rrapatu zutenetako bat, Manuel Olazola, patroi zutela. Men-deurrena ospatzeko ez litzateke batere txarra Kontxako 30. bandera irabaztea urte horretan. Orion sekula izan den festartik handiena ospatuko gemike.


Ez da helburu txarra kolore horia bihotz-bihotzean sentitzen du-tenentzat, lanari gogoz eta gogor hiltzeko.

Aupa Oriol!

IKAKI ITURAIN

ERRUSTA

*Kriston
bokadillok!!*



KoastA
Lasaitasuna eta giro ona

**Itsas Etxeko
taberna
Arkaitzkoen gain**

Urriaren 28an Pasaien bildu ziren Itsas Etxeko tabernaren jabe berriak zéniz izango diren erabakitzeko. Aurkeztu ziren lau eskakizunen artean Arkaitzko Roi eta Mikeli emates erabaki zuten. Arkaitzko jaheak berritze lanetan ari dira orain eta abenduko lehen asteko irekiko dute. Mikel Arkaitzen geratuko da eta Roi hartuko du Itsas Etxeko ardura.

**Festetako
bilerak martxan**

San Nikolasetako programa prestatzeko bilerak hasiak dira dagoeneko. Bilera horietan herriko hainbat talde ari da parte hartzen.

Arkupe taldeak ikastola ondoan Alaitz eta Maider jartzeko asmoa du eta Paco Formosa y sus Mariachis ere ekarriko dituzte. Banderen bedeinkazioa, herriz, igandean izango da.



Ostargik eskerrak eman nahi dizkie josteko makinak utzi edota eman dituztenei.

I30 emakume Ostargik antolatutako ikastaroetan

Urriaren hasieran hasi eta malatzaren bukaera arte jarduten dira urtero Orioko emakumeak Ostargi taldeak antolatzen dituen hainbat ikastrotan. 1992. urtean ekin zioten 15 bat emakumek ikastaro bakarrarekin, eta aurten 130 emakume inguru dira bederatzi ikastrotan izena emanda dutenak. Beraz, ikusgarria da Ostargi taldeak izan duen arrakasta, eta batez ere emakumen artean.

Aurten dauden ikastaroak honako hauetan dira: bordatua esku, bordatua makinaz, gurutze puntara, bolilloa, gantxilloa, polikromia, pintura artística, pintura telan eta baita autoestimako saioak, hiru hifabetez.

Ostargiko arduradunek adierazi digure eskerrak eman nahi dizketela josteko mainak utzi edota eman dituztenei eta baita Juan Lizaso ere, jasotako makinak konpondu, moldatu eta martxan jartzeagatik.

**San martin festak
Ortzaikan**

Honako festa programma prestatu dute Ortzaizkoek San Martinak ospatzeko: azaroaren 11n, San Martin eguna, goizeko hamarretan meza eta, gero, toka txapelketa; gauean, Usurbilgo trikitilariek alaituko dute auzoa. Azaroaren 14ean, gaueko hamar eta erdietatik aurrera, mus txapelketa azkarra jokatuko da. Larunbatan, azaroak 15, ollasko biltzaileak gotzeko seietan aterako dira. Gaueko hamarretan bertsosaioa izango da, bertsolari hauetan: Joxe Lizaso, Manuukorta, Joxe Agirre eta Patxi Etxeberria. Gero, Trakets taldeak joko du. Igandean, azaroak 16, meza gotzeko hamarretan eta, segidan, herri kirolak. Bilarakoek bazkaria egingo dute gero bertsolari eta trikitilariekin. Bostetan, berriz, txokolate jana egingo dute eta, iluntzean, berbenalatua joko dute Epelde anaietek.

**Juantxo
HARATEGIA**

Telefona: 83 18 37

URAITZ
LURRINDEGIA

KIROMASAIA

ESTHETICIEN

ENDAIA, 3 Tfnoa: 83 18 97

AHOLKULARITZA

Fiskala, Laborala, Kontablea

ASEGURU ARTEKARIA



Eugenio Garmendia

Ibai Ondo, 1 Tfnoa: 83 44 66 - 83 49 17



SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

83 00 05

Tfnoa: 13 25 32



Arrantzaleek kanpaina ona egin dute aurten

Kampaina ona egin dute aurten arrantzaleek. Udaberri partean antxoa, txilxarro eta berdeletara joan ziren eta, guztira 1.561.450 kilo harrapatu zituzten, eta 155.000.000 dirotan, nahiz eta prezioak kaxkarrak izan.

Uda partean, berriz, irailaren 30era bitarteko datuen arabera, 1.020.000 kilo atun eta hegaztuek harrapatu zituzten, 425.000.000 dirotan.

Orain, berriz, Kantabriko Berria eta Villa Real Azores irletara doaz san Nikolas festak arte.

Zubi Zaharra
konponentzian
saiatu diren
arren, azkenean,
berria egitea
erabaki dute
Diputazioke
teknikariekin.

Xuaiko zubia obretan azken lau hilabetetan

Diputazioak urriaren 7an jakitera eman zuenez, zubi berria egingo dute orain dagoenaren lekuaren. Uztailaren erdialdean, zubiaren erdiko zutabea zulatu egin zuten sendotu eta indartzeko asmoz, eta, geroztik, ibilgailuek txandaka pasa behar dute handik.

Zubi berria eraikitzeko, beharrezkoa da zimentatze lan sakonak egitea mikropilotoen bidez, eta lan horretarako bi hilabete eta erdiko epea beharko da gutxi gorabehera.

Epe horretan, orain arte bezala, ibilgailuek zubitik txandaka pasatzeko aukera izango dute.

Hala ere, egun batzuetan, errepidea itxi egingo da ibilgailu guztientzat.

Ibilgailu astunek (camioi handiak-eta) debekatua izango dute errepide honetatik Igurozeta urriaren azken astearen eta azaroaren lehen bi asteetan. Beraz, Akitik barrena edota autopistaz ibili beharko dute. Gainera, gutxienez asteburu batean, errepidea erabat itxi beharko da zubi berriaren oinarria jartzeko.

Obrak aurerra egin ahala zehaztuko dira errepidean eragin izango duten aldiaketa eta zubia ze egunetan izango den erabat itxita.

Jubilatuak Arantzazura

Urriaren 22an 140 lagun joan ziren Arantzazura Zaharren Babeslekuak antolatuta. Golezko Stan abiatu ziren, hamaitakaoa Oficiatzen egin zuten. Ondoren, Arantzazun meza entzun zuten, eta gero bapo baziakdu zuten Kiruri jatetxean.

URBAZTER ASEGURUA K

San Nikolas kalea, 6
Tel.-Fax: 13 33 14

- Transferentziak
- Lizentziak
- Eskriturak
- Penalak
- Errenta Aitorpenak
- Bidoiak, e.a.

Carmen
ARRAINDEGIA
.....

Teléfono: 83 05 37

TXOMIN
arrayaindegia

Tfnoa: 83 27 47



R A M I R O
Telefaxa: 83 10 48

**Internet ikastaroa
antolatu du Udalak
Euskaraz Gazte
programaren
barruan**

Udaleko Kultura, Hezkuntza eta Euskaraz batzordeak Interneti buruzko ikastaro bat antolatu du, aurtengo Euskorutz Gazte programaren barruan.

Ikastaroa azaroaren 17an hasiko da eta 28an bukatuko da. Kultur etxearen emango da, sei ordenadorez hornituko den gela batean. Guztira 20 ordukoa izango da eta 9.000 PTAKo prezioa du.

**Euskaltegia ere
martxan da
azkenean**

Euskaltegiako klaseak azaroaren 10ean hasiko dira: ohizkoan baino hilabete beranduago. Aurten aldiaketaik izan dira eta hemendik aurrera. Orioko euskaltegia ez da munitipala izango. Donostiako Abegi euskaltegiaren adarra baizik.



Txikienek Musika Tailerrean egun batcan erritmos eta bestean dantza lantzen dituzto.

Ikasle berri ugari dabil aurten Musika Eskolan

Aurten taztutu jende gehiagok eman du izena Musika Eskolan. Jeneralean hartuta, igoera izan da (la 50 ikasle gehiago); baina igoera hori oso nabarmena da bait gitarrako asignaturan (jaz 30 ikasle; aurten 41 eta, hantz ere, dantzaean (jaz 42 ikasle; aurten 82).

Elena Errasti zuzendariek adierazi digunez, nabarmentzeko modukea da, baita ere, aurten jende heldu asko matrikulatu dela piano ikastera. Guztira 28 lagun ari dira piano ikasten eta horietatik asko 30 urtetik gorakoak dira.

Elenaren esanetan baliteke hurrengo urtean tope batzuk markatu beharra asignatura batzuetan, bestela musika eskolaren jarduna desorekatu egiten baita. Aurten harrigarria izan da gitarrak eta dantzak izan duten gorakada. Martxa honetan segituz gero, dantza eta gitarrako musika eskola bat bihurtuko gara eta hori ez dugu nahi. Ahalik eta eskaintza barianetan eman behar du eskolak.

**Bilar Txapelketa
Amilibia tabernan**

Azaroaren 6an, osteguna, gaueko zortzi eta erdietan, hasiko da Gipuzkoako Bilar Txapelketa taldeka, Gabonak arte izango da ostegunero eta irabazlesak Espainiako txapelketan parte hartuko du.

Bestalde, astearte-ro, bakarkako txapelketa izango da doan.

Kirolegia 99rako

Diputazioak 130 milioi emango dizkio Udalari kirolegia egiteko (98an 20 milioi, eta 99an 110). Piszina eta kiro pistak izango dira, baina Diputazioak ez du emango dirurik pisinarako.

Salatxo

Kote Cabezudoren Bilbao eta modari buruzko argazkien erakusketa dago Salatxon.

Azaroaren 7, 14, 21 eta 28an, 23:00etatik aurrera, mendiari buruzko diapositibak emango dira.

TANATORIO ZARAUTZ
EUROPEANERIAS TALDEA

Hiletza eta zerbitzu orokorrak

- ✓ Donostia eta probintziako ospitaleetan
- ✓ Aldirotako zerbitzua
- ✓ Belotorio gelak
- ✓ Korolak, eskelak, tramitzazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel/Fax: 13 22 52

ANARR

Kirolegia eta debara librea
acepta eta skipamenduak

tlfnoa: 83 21 60

IL GELATO

Etxeko helatuak eta
kruasanak

San Nikolao, 17. Tfnoa 131747

ELIZALDE

Igeltsuritzako
Lan Rustikoak

Arkuak eta zurezkoak
Trilinak
Egur eta hormigoxko
estructuren berrikusia
Eraberrizte lanak baserritako
etxebizitzetan
Igeltsuritzako orokorki
Arteko teknikoen
egindako proiektu eta
lkeraketak

83 11 15

ZARAUTZ
Maria Etxetxiki 1. B.3.

13 49 09

ORIO
Kata, 2. 1. etx.



Uda parterako,
malekoia eta
horren atzeako
parkea egindo
dituzte hondar-
tza inguruau.

Hondartzako obren lehen fasea 98ko udara parterako amaituko da

Dakizuenet, dagoeneko hasi dira hondartzako obrak. Hauetan hiru fasetan joango dira eta lehenengo fasa uda iristerako amaitzea espero da. Lehen fase horretan hondartzaren aurreko zatia sartzen da, eta bertan malekoia egindo da eta, horren atzean, parke bat.

Hiru lokal ere egingo dira hondartzako zerbitzu tarako. Guzti hori maiatzaren hasierarako amaituta egon behar du, Jose Miguel Makazaga alkateak esan digunez.

Ondorengo bi faseak batera samar hastiko dira. Hauetan kirol portua eta zona erresidentziala dira, azken hau hotel koxkor batez osatua. Lan guzti

horiek zoritzi urtetan bukatzea espero da,

Bestalde, oriotarron ahotan dabil kampina txikituz, herriak dituen diru sarrerak murriztu egingo direla. Baina alkatearen esanetan, lan berri horien helburua Oriola jende gehiago etortzeko eskauntza hobea izatea da. Onuragurria izango da herriaren zatiz lanpostu gehiago sortuko direlako eta baita diru sarrerak gehitu egingo direlako ere, gaineratu zuen.

Azkenik, alkatea baikor azaldu zen, bere ustean, denbora bat pasa ondoren (2005-2015 urte- rako edo) Oriok orain baino biztanle gehiago izango baititu.

handik eta hemendik

JOSE LUIS KORTA
Entrenatzailea

"Egurikuria irakurria, badirodu klubarekin gezurretan jardun naizela. Ez da egia, berak izan ziren lehenak notizia jasotzen, Castrotxo batez eman baino lehenago, gainero".
(DV, 97-10-29)



JOSE JULIAN OLASAGASTI
Orioko Arraun Klubeko
presidentea

"Badakigu Korta joatea galera handia dela, baina inor ez da ezinbestekoa eta, guk arraun kluba ahalik eta ondoen mantentzen suatuuko gari".

(DV, 97-10-29)



ANJEL LERTXUNDI
Idiazlea

"Guztiok gara bizi
dugun egoeruren
erantzule".

(Elkarri, 97-10)

KOLON TXIKI

* PINTXOAK * KAXUELITAK *

EGUNeko MENUA



83 00 44 / 13 20 26

Herriko Plaza, 4

EROSLE

AUTOZERBITZUA

• TRAGOXKA •

PUB

Aitzaga, 11

01 08 25

Juan Albizu
elektrragailuak

Eta orain

Sukaldeko
alzariak!

Tfnoa: 83 12 49

**Judokak
ondo hasi dira**

Denboraldia hasi besterik ez da egin eta, judoek emaitza onak lortu dituzte. Urriaren 15 eta 16an Iberoxamerikako nazioarteko txapelketa jokatu zen Errenterian. Ibai Peña eta Iker Ostolaza izan ziren bertan. Ibai 5. pos-tuan geratu zen 60 kg azpiko mailan. Ikerrek brontzezko domina lortu zuen 86 kg. azpiko mailan.

**Saskibaloiko
denboraldia hasi da**

Oriogi mutilen taldeak eta Arraun Elkartearen barruan dagoen nesken taldeak hasi dute denboraldia.

Oriogi sei zarauztar eta sei oriotarrek osatzen dute. Taldea utzi zuten hiru itzuli egin dira: Antxon G. de Txabarri, Imanol Lizaso eta Rikardo Uzkudun. Nesketan, Zarnuzko hiru eta donostiar bat dabilizta: herriko seitz gain.



OBBk dei egiten die kirol honetan parte hartu nahi duten 13 urtetik gerakoen. Entrenamenduak astearte, asteazkon eta ostegunetan izaten dira Zaragueta eskolan.

Orioko Bate Bizkorra Espainiako Txapelketan

Joan den urriaren 4 eta 5ean Valentzian Espainiako solbel txapelketa jokatu zen, nesken junior mailan. Bertan oriotarrak hirugarren postuan geratu ziren, azken momentuan Gavà taldeari, hau da, inzko txapeldunari, irabaziz.

Aipatzeko da, txapelketa honetan 18 urte bittako neskek har dezaketela parte, eta oriotar gehienek ez dituztela 16 urte. Banakako sarituan Jessica Rodriguez oriotarrak pitcher onenaren saria irabazi zuen. Jone Iparragirre, Karmele

Garmendia, Miren Gozategi, Elena Etxeberria, Nekane Iribar Ghariba El Ghailani eta Leire Fernándezek, laster Euskadiko selekziorako hauta probak izango dituzte.

Azarearen San, jarunbatearekin, mutilen mailako Lehendakari Kopako finala jokatu da Bilbon. Bertan parte hartuko dute OBBko mutilek. Nesken mailako finala, berriz, Tolosan jokatuko da igande goizean eta han OBBko nesken taldeak parte hartuko du.

**Nestor
Gozategi
ITURGINTZA**



907-224100

BOUTIQUE
Zure gustuko anopak

Estropalari kalea, 12 - Telf. 132816

LIZASO
ERLOJU eta
BITXI DENDA

Orlo, Kaia 5 Telfnoa: 83 10 90
Zarautz, Ipar 6 Telfnoa: 13 17 43

ALUYOLA, S.L.

**LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,
BAINU MANPARAK.**

**P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANOA**

KOLORE AUKERA UGARIA

Fátima Alpírez Ibarreta

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE
Telefona: 36 22 77



Bi talde Zarauzko plaierotan

Zarauzko hondartzako futbol txapelketan, lau taldetan banatuta, 37 talde aritu dira lehiari. Horietatik bi herrikoak. Kepa Loidisk baja dexeente izan ditu aurien, batzuk futbol zelaian hasi baitira. Hala ere fitxaje politikak egin ditu; Asier Urdangarin, Jose Manuel Agirresarribia, Oskar Larrañaga, Jatme Cotado eta Rojelio Perez. Pukas Alai-Orio taldea, berriz, Orio eta Zarauzko jendeak osatzen du. Iñaki Arostegi eta Ramon Errasti gehitu zaizkie aurren. Txikiak, berriz, larunbatean jokatzen dute futbolean Zarautzen.

Ikastola 10 talde ditu lehian; 2 talde benjamín neskamutilenak, 3 alebin muntilak, 2 alebin neskak, 2 infantil muntilak eta infantil nesken talde bat. Zaraguetan, berriz, bi talde alebin eta benjamín neskamutilak ari dira lehian.

Iratin barrena bizikletaz Talai-Mendik antolatutako irteeran

Urriko bigarren asteburuan hamabost lagun izan ziren Iratin Talai-Mendik antolatutako irteera batzen. Antolatzen dituen irteerekin konparatuz, ordea, bazuen berezitasun bat: Ibilbidea bizikletaz egiteko zela.

Larunbatean, goizeko 7:00tan atera ziren plazatik. Otxagablako Osate kanpinean hartu zuten otsatu hamabost lagunek: bost neska eta hamar muntil. Bungalow batean bederatziz pertsona sartu ziren eta beste kuarto batean sei. Hamabost horietatik hiru bizikletarik gabe joan ziren, oinez ibiltzera alegia. Larunbateko ibilaldia 47 kilometrokoa zen. Iratiko informazio gunetik hasi eta Orbaizetaraino joatea zen helburua. Orbaizetan arma-ola

ikusi nahi zuten. Baina euri zapatada hasi zuen iristean eta ez ziren arma ola ikustera joan. Aterpe batean barrua pixka bat bete ondoren, buelta berriro iratiko informazio gunera. Itzulera nahiko luzea egin zitzaien gehienei, autobusa gertuago zegoela usite baitzuten.

Igandean, oinezko hiru pertsonei lau gehitu zitzaiakien, aurreko eguneko dexeente triditu zitzaielako edo. Bizikletakoak Orhi aldera joan ziren eta, oinezkoak, berriz, hamabigarraren kilometroan utzi zituen autobusak Otxagabiara itzul zitezken. Aipatzeko da, batzuek egunahala egiti arren, ez zirela Muskildan izan azkenik. Hurrengoan izan beharko du.

KELER

GURE HERRIKO GARAGARDOA

Iñaki Garate
Aseguru-agentea

C C C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Aseguruak

Eusko Gudari, 14 (atzek.)-3. Telefonoa: 13 46 07



HERRI IKASTOLA

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 83 47 04
FAX: 13 09 38

“Trinketea oso polita da; frontoikoa baino joku bixiagoa”

Eli Lasa aiarrak Munduko Trinkete Kopa Txapelketan brontzezko domina lortu berri du Baionan. Baino hori ez da izan 34 urteko emakume honek irabazitako txapelketa bakarra. Bost aldiz Gipuzkoako txapelduna, bi aldiz Euskadikoa eta Espainiako eta brontzezko domina Munduko Trinkete Txapelketan 1994an. Ez da makala Elik duen eskamentua.

Noiz hasi zinen pelotan?

Betidanik ibili naiz, baina emakumeentzat lehen paleta txapelketa Gipuzkoan 1990ean izan zen, eta orduan hast nintzen lehian. Eta, egia esan, ustekabe galanta izan zen hainbat herritako neska talde handia osatu baikemu. Oso ondo konpondu ginen eta kirol honetan zegoen emakumezkoen hutsunea betetzen saitu ginen.

Nolakoak dira entrenamenduak?

Entrenatzailerik ez dugunet, gure artean jarduten gara besteen okerrak zuzendu nahian, elkar animatuz eta, batzuetan, erritan ere bat, gauzak nahi genukeen bezala irteten ez direnean.

Normalean ia asteburuero partiduren bat izaten dugunez, astean zehar norbere-kasa ibiltzen da prestakuntza fisikoa egiten, eta astean behin edo bitan elkartzen gara frontoian. Nik, adibidez, astearazkenetan Orioko frontolan entrenatzen

dut Orio, Aizarna eta Zarauzkoekin, eta ostiraletan Donostiarra joaten nadiz trinketean ibiltzen.

Bikoteak egiterakoan nola moldatzeko zarete?

Txapelketa gehienean laguna aldatu egiten dugu, baina beti bikoteak ahal den orekatuenak eginez. Ez dugu ahazten gure helburu nagusiena pelota zabaltzea dela eta neska gehiago animatzea gurekin jokatzeko. Horregatik, jokalari onenek beti elkarrekin jokatuko balute, besteak ez lirateke motibatuko. eta ez dugu hori nahi.

Nola reakzionatzeko du jendeak jokatzen ikustean?

Lehenengo aldiz ikusten gaituztenak normalean harrituta geratzen dira, eta batez ere hast berriak ginean, ordurarte emakumerik ez baitzen ibiltzen palaz, konpetizioan behintzat. Hasieran zuriz ikustean harritzen dira, gero, pelota mazizoarekin joka-tzen dugulako, eta ez tenis-



koarekin, batek baino gehiagok espero duen bezala, eta, azkenean, beraiek uste baino gehiago jokatzen dugu-lako. Ez naiz gogeratzen zein herrian, partidua hasi baino lehen jendea gainean genuen eta, esan arren, ez ziren baztertzen, ez bai-zitzalen iruditzen pelota erreboteraino iritsiko zenikedo bi pareta bixi ateratzen zirenik. Be-ratz jokatzen hast ginen eta berehala mogitu beharra izan zuten. Hori askotan gertatu zaigu, baina gero eta gutxiago, ezagutzen gaituzten neurrian.

Deitzen diguten frontoi guztieta joaten salatzen gara, beste emakumeak ere animatzeko. Demostratu nahi dugu gauza garela pilota mazizoarekin joka-tzen dugulako, eta ez tenis-

Munduko bi txapelketan izan zara. Zer kontatzen diguzu esperientzia horren gaineant?

1994an joan nintzen lehen aldiz Donibane Lohizunen izan zen Munduko pelota txapelketara. Orduan trinketean, frontoian eta frontenisean jokatu ziren lehiaketak. Leku batek bestera ibili ginen gure taldekoideak animatuz eta, niretzat berria izan zen frontenisean jokatzen ikuslea. Beste nazioetako kirolariekin bantzuketako garman bakarrik elkartzen ginen, eta ez gumen aukera gehiegirik izan elkar ezagutzeko. Gainera, janariarekin arazoak izan genituen, oso eskasa izan baitzen eta hauk baino gehiagok osasun arazoak izan genituen.

Aurtengoa, berriz, Balonan egin berri duten kristalezko trinkete ikusgarrian jokatu da, eta gauzak askoz hobeto joan dira: janariarekin ez dugu problemarik izan, trinketeko jokalariak bakarrik geunden eta gure arteko harremana estuagoa izan da aurien,

Trinketea ez da oso ezaguna hegoaldean.

Ez, hemen gutxi dau-de eta, gainera, ordaindu egin behar da herriko jokatu ahal izateko. Ondorioz, ez dago Iparraldean edota Hegoameriketan dagoen afizion. Guk frontoia herri guztieta dauka-gun bezala, Iparraldean trinketeak dauzkate. Egia esan, oso polita da, frontoikoa baino joku bixiagoa.

Azterketa imajinarioa errealitateaz

Hadira dagoeneko ia 20 urte ikasle nai zela eta, konprentuko duzuenez, asper asper eginda nago azterketetan irakasleak ezarritako galderak erantzun behar izaten, nik neure buruari ezartzeko ankerarik izan gabe. Horrela, ba, oraino honetan irakasle papera hartzea okurritu zait eta nik neure buruari egiten dizkodian galderak zuei azterketatxo imajinario baten bitartez adieraztea pentsatu dut.

Azterketak ez du gai konkreturik, ez eta denbora mugarrak. Besterik gabe, azterketa hastera doa.

1. Hondartza? Arriskuan al dago, ba, hondartza? Zer egingo dute, ba, hondartzarekin? Banatu al dute informaziorik? Banatu zituzten, ba, eskuorri informatiboak etxeko uraren jatorria aldatu zenean. Gainera, egon al da proiektua eztabaideatzeko aukerarik? eta industrialden egiteko garai?

2. Kirolegia? Ez ote da behar kirolegirik? Hondartzako pisuak behar ote ditugu herritarrok? Diru iturri izango al dira? edo dirua iturritik botako ote dugu? Alkatearen soldadu murrizta erabili behar ote dugu kirolegia ordaintzeko? Ke krash!

3. Iruoi al duzue Itxaspe bideko zuhoan dagoen zikinka pila? Ez al dago kontenedorerik herrian? Ez al da mendiak berez garbia?

4. Euskaraz Gazte? Eta etzeakoandreak zer? Ezin ote dira kontutxoak gure hizkuntzaz kontatu? Zukurrek eta haurrek bakarrak al dakite, ba, euskaraz?

5. Entitateen erreketa: ideia bigunak eta jarrera gogorrak? Ez al litzateke hobe ideia gogorrak eta jarrera bigunak edukitzea?

6. Zenbat kilometro daude Oriotik Carabanchelera? (Galderu Eusebio Lasarteren senideei)

7. Stormont? Ez ote dago Orioko Udalean mahai borobiltik? Pleno bereziak iskanbila ondoren balio ez al dira aurrelik hobe? Denak hitz egiteko prest bidaude, zergatik ez dute hitz egiten?



RIKARDO UZKUDUN
Ikuslea

8. Insumisioa-sumisioa bi hizkiek soiliak bereizten al dute? Alkateak soldaduzka egina duen arren, noiz egingo ote da insumiso? Denak insumisioaren alde eta ia denak sumiso; erosotasunaren legea edo koherenzia falta? Zerk bultzatu du soldaduzkaren amaitera? Bukatu al da goda? ez al du armadak jarraituko?

9. Erriberak, txalei berriak, protekzioko etxeak, hondartzako etxeak... Ze gaztek dauka 20 milioi batzuk gehiago gaur egun? Bankuen menpe egon behar al dugu, ba? Zenbar etxe huts dago goiko kalean? Etxeen hilerra ote? Zergatik ez etxe zaharrak konpondu eta okupatzeko plan orokorreko? Okupazioa arazo pertsonala al da, ba?

10. Kultur etxea bai, baina non dago Oriotarren kultura? Galdutako objektuen tekniak egongo ote da?

11. Asmakizun bat: zer da azaletik euskalduna dena eta mamia eraldalduna duena? (zelad?)

12. Ongietorriak edo errezibimenduak kiroletat batzuk bakarrak merezi al dituzte?

Ez al dago banku mugikorreko txapeldun? Pelotaririk? Judokarik? Surflaririk? Saskibaloiaririk? Korrikalaririk? Harta jasotzalikerik?... Ez al ditu, ba, Udalak antolatzen errezibimenduak?

13. Noiz egingo zaio omenaldia Orioko pertsonai unibertsalenari? (oraintxe egun berriak ditu, gainera, 89 urte). Beti bezala, hil eta gero? Egoskortasuna ere senda omen datetek 89 urterekin; oriotarron kasta ote?

14. Zenbat tabernarik ezagutzen du, adibidez, Deabratuak Tejatuetan taldea? Zenbatek Seguridad Social? (ez dut ezer Seguridad Socialen aukera, nahiz eta parroki-kobrato ez) Tabernetan ez ote dago bezerorik prentsa euskaraz irakurri nahi duenik? Hau du marka. Marca nonahi eta Euskaldunon Egunkaria ia inoa ez, eskerrik Karkarart!

15. Jesus Mari Aranzamendi, Juan Carlos Hernando, Josu Zahala, Jose Luis Salengi, Fernando Elejalde, Gorka Gomez, Gaizka Gatzelumendi, Joxe Miguel Bustintza... ez al zarete konturatua Belorri Handikoa su-durra lutzatzen ari zaiala? Horrela ez goz inora!

16. Konturatua al da konturatua behar duena Ermuko euskaldegian zenbat jaitsi den matriculazio kopurua ikasturte honetan? (ikus 97-10-24ko Euskaldunon Egunkaria). Horrela ez goz inora!

17. Bikitzezo, asimaldizun bi: ze hizkuntzatari idazten dizkio gutunak Lehendakariak Jesuitari? (zelomupse). Zeintzu dira traha guztien gainerik Euskaldunok ELKartzeke lanean ari diren bi Elkartea? (ARRI eta A).

Erraza, ezta? Erlojuko orratz potoleo mugitu al da? Hala badia, ni kontent, ez baita galduzko denbora izango. Hori baitzen nire helburua, ez beste. Besoak guratzatuta aspertu egiten dira: lizatu itzazue eta bilatu zuen barne askatasuna, horrek eramango baititu guztien askatasunera.



Pelukeria
Solariuma
Estetika

6 83 27 29

Gazte eta jubilatuentzako
prezio bereziak

Anguletarako motorra

SALGAI

Aginagako Intxaurretan

Luis San Sebastian 43 14 71

Moto Vespa

Salgai

200 c.c. SS-X

6 36 62 60. Deitu gau aldera



Alzola auzoko
laster izango
dugu festetan.

Urdaneta eta Alzola auzoko festak laster

■ Nahiz eta Aiako kaskotik oso gertu ez egon, merezi du hurbiltzea

Udazkenean egon arren, ez dira oraindik jaiak bukatu gure herrian, Alzola eta Urdaneta auzoetan azaroan ospatzen baitira. Ez litzateke plan txarra izango astebururako; adibidez, mendi bueltaska egin, paraje ederrak ikusi, harmaiketakoa egin eta, gainera, festak disfrutatu. Aitzakia polita ondo pasatzeko.

ALTZOLAKO FESTAK

San Roman festak azaroaren 18an hasiko dira. Egun horretan Meza Nagusia izango da eta, ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariak arituko dira. Larunbatean, azaroaren 22an, gauean Etxabe anaiaik izango dira eta igandean, beriz, Meza Nagusia eta ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariak.

URDANETAKO FESTAK

Azaroaren 9an, zaharren egunean, goizeko hamaiketan Meza. Gero eskuz banakako bi finalak, gazte eta helduen mailan. Ondoren, Izeta II.ak bost minutuko saio bakarra egingo du Urdanetako txingarekin. Bertsolariak, Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso, eta Laja eta Landakanda trikitilariak. Astearte, san Martin egunean, Meza Nagusia ondoren, txinga eta pala finalak. Gauean, beriz, Etxabe anaiaik. Asteazkenean, oihasko biltze eguna. Ostiralean, azaroaren 14an, mus txapelketa Begonia jatetxeen, Larunbatean, haur jolasak eta, gauean, Zabaleta eta Imanolen taldea arituko da. Igandean, eskuz binakako finala, arratsaldean, Amalur abesbatzaren saioa eta, gauean, Etxabe anaiaik.

Futbola hasi da hondartzan

Iaz futbitoan jokazten aritu baziren ere, aurten berriro hondartzara itzuli dira herniko futbolzaleak. Hiru taldek parte hartzen dute Zarauzko hondartzan: bata, senior kategorian —hauak futbitoan ere aritzen dira Gipuzkaoko lehen mailan—, eta beste bi taldeak, Lardizabal eskolakoak dira —hirugarren eta seigarren mailak egiten ari direnak—. Orain arteko emaitzak onak ez badira ere, gustora dabilitza, ondo pasatzen dute eta liga bukatzen denerako goian egoteko esperantza daukate.

Ibilaldi gidatua azaroaren 22an

Azaroaren 22an, larunbata, Urdanetako Alzolara izango da ibilaldi gidatua: Urdanetako plazatik abiatuko dira goizeko 9:30etan, handik Saberriko haitzetan dauden bi dolmenak ikustera, eta ondoren, Neberara joango dira —garai bateko elurzuloa—. Segidan, Alzolako behitegi modernoa bisitatuko dute eta baita XVI. mendeko San Roman ermita. Itzulera eguerdiko ordubata eta erdietañ izango da gutxi gorabehera. Beti bezala, Arreta taldekoek botak eta euritakoa erama-tea gomendatzen dute, nahiz eta orain artean behintzat, eguraldi ezin hobea izan dugun.

Autoak aukera
Onean
AIA ORIO

Teléfono: 13 04 38

ITURAIN
estankoa

Aritzaga Plaza 13 44 73

LIZASO
ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 83 07 84

MARIA LUISA IRIZAR

‘Nire senarra da gehien animatzen nauena, besteek ez dute entenditzen zer den hori’

Maria Luisa Irizar andoaindarra gure artean bizi da azken urte hauetan, Salbardin baserrira ezkondu baitzen. 33 urte ditu eta, azaroaren 23an, Andoaingo zumeatarra, marka ona egiten saiatuko da Donostiaro maratoian.

Eli Lasa

Aspaldian ez dugu zure berri izan, zertan ari zara momen tu honetan!

Isilpean gabilta. Zerbait egiten genuenean, marka on bat edo, entrenatzaleak berak deitzen zuen egunkarietara: baina, orain, osasun arazoak direla-eta, ez du lan hori hartzen, eta beharbada horregatik ez nitzaz azaltzen egunkarietan. Baima, Donostiaro maratoia prestatzen ari naiz. Urte guztian errepidean ibili nitz, krosa alde batetan utziz, eta pista ere deaxente egin dut.

Martxoan Zumaiako korritu nuen eta bigarren postuan irtisi nintzen. Handik Iparraldeko joan glinen Euskal Herriko tour-a egitera, eta bertan 18 ekipotik bigarren gelditu ginen. Karrera gogorra izan zen, baina oso polita, bi egunean bi maratoi erdi korritu baitzen.

Gero beste bi maratoi erdi egin nuen. Oloren —Iparraldea— eta Iruñan; azken horretan Espainiako markarik onena egin nuen, distantzia horretan. Ondoren, pistan hasi nintzen eta minima egin nuen Espainiako txapelketan parte hartu ahal izateko, baina ekipoak diririk ez zuenez eta federazioa ordaintzeko

prest ez zegoenez, ez ginen joan.

Zenbat maratoi korritu dituzu?

Uff, pila, 19 urte ntuenean hasi nintzen. Nik motzean ez muen balio. Pistan joaten nintzen 3.000 m. egitera eta bertan pentsatzen hasten nintzen bueltak ematea besterik ez zela eta aspertu egiten nintzen. Entrenatzaleak esan zidian pistan ez muela sekula ezer egingo. Markak, berriz, pistan eskatzen dituzte, eta nik ezin muen: errepidean, berriz, oso ondo ibiltzen nintzen. Gero tarteka pistan sartzen nintzen marka egiteko, baina nik errepidea nahiago dut.

Zer iruditzen zaizu Donostiaro maratoia?

Ondo, Txarrena, beharbada, urte garai honetan egitea da. Urtengo Pilarica egunean izaten da eta normalean hazi edo eguraldi txarra izaten

dugu. Oraingoan atzeratu egin da Munduko Txirrindulari Txapelketa zela-eta. Eta berareiek izan dute eguraldi txar hori. Eskerrak, bestela ez zen marka onik aterako eta. Guretzat ere hobe izan da egun aldaketa hori.

Zu baserrian bizi zara. Nola moldatzeko zara bertako lanak egin eta maratoia prestatzeko!

Organizatu egin behar da. Udan, golzean goiz jaiki, eta entrenamendua garaiz egin. Horrela libre geratzen naiz baserritako lanak egiteko. Maratoi honetarako, adibidez, golzean ordu eta erdiko-saina egiten dut eta gero beste ordu erdiko gimnasia. Arratsaldean, berriz, ordu bete igual... edo

serie batzuk edo...

Eta tarteka “deskantsatze ko” baserritako lanak, ezta!

Bai, je, je... Beno, beharrean ibili garenean ordu beteko entrenamendua egin beharrean ordu erdiarekin pasatzen nintzen.

Baina konturatzen naiz, marka egin nahi badut. Hiru hilabete behar ditudala eta etxeko lanak pixka bat alde batera utzi behar ditudala; oso gogorrak ez direnak momen tua egin, eta besteak, berriz, beste baterako utzi.

Otordu bereziak egin behar izaten al dituzu!

Beno, asteburutan salatzen naiz karbono hidrato gehiago sartzen, makarrotak, arroz txuria edo egosia... baima: gal-



Gogorra da oso entrenamendua korrikalarientzat, kilometro asko eta asko egin behar baitira. Batzuetan, arratsaldez, Orioko plaiara jaistea da korrika egitera.

nortzean normal, denetik ja-
ten duit.

Zer esaten dizute etxeak? Animatzan al zaituztel?

Gizonak gehienetan. Besteek ez dute entenditzen zer den hori. Adibidez, egun batean 25 km. egin ondoren mareatu-ta etortzen naiz etxera, ezterako kemenik gabe eta ohera joateko desiratzen. Eta hori ez dute ondo ulertzen. Nola egon daitieke mareaia? esaten dute. Ez dute ulertzen hori gerta daitekeenik. Baino gizonek asko laguntzen dit, eta horri eskerrak. Behin baino gehiagotan leher egindako oheratua izan naiz, jateko gogorik gabe, eta gauerdian berak ekartzen dit zerbait.

Korrikak ere behin baino gehiagotan ikusi zaitut gizonea atzetik duzula autearekin.

Bai: garai batean, Alara ezkondurri nintzenean, errepideak neurri egiten genituen, berak koxez laguntzen zidala, edariak eramateko eta horrela, eta nahiko ondo moldatzen ginen. Baino, gero, esan zidaten aldapan gora eta behera gehiegiz ibiltzen nintzela eta horrek asko nekatzen zuela gorputza.

Orain, berriz, Donostiarra joaten naiz egunero, goizeko zortzi eta erdiak aldera, gorputza ohitu egin behar baita

ordu berean ibiltzen, Arrasoldetan, batzuetaan Orioko hondartzara ere joaten naiz.

Esaten da maratoi bateko lehen kilometroak ondo egiten direla; azkenekoak nolakoak izaten dira!

Azkenekoak ahal den moduan egiten dira. Baliteke karrera guztia ondo eramatea eta



azken bi edo hiru kilometrotan ezina agertzea. Orain dela bi urte gogoan datu primeran joan nintzela hogeita hamargarren kilometroraino, baino hortik aurrera izugarri sufritu mien, hankak kalambreatuta... Erretiraturi nahi ez eta hukatu egin behar. Buruak ere lan izugarria egiten du horrelakoetan.

ORGANIZATU EGIN BEHAR DA. UDAN
GOIZEAN GOIZ JAIKI ETA ENTRENAMIENTUA
GARAIZ EGIN, HORRELA LIBRE GERATZEN
NAIZ BASERRIKO LANETARAKO.

Ze azmo dituzu egun gutxi barru izango den Donostiarra maratoirako!

Momentuz gustora nabi eta animatutua nago, Gustora geratuko nintzateke bi ordu eta 38 minututik jaitsiko banitz. Aukera izan ez gero orain dela sei urte lortu mien Euskadiko errekorra hautsi nahi nuke. Gainera, han lortutako markak selekzionatzaileek kontuan hartzen dituzte eta garrantzitsua da. Otsaldean izango da Espainiako txapelketa eta han lehenengo hiru postuetan iristen direnek, mundialerako postua lortzen dute.

KarKara

Alldapa
Taberna
= 89.00

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak
Bidaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 Mugikorra: 909-40 12 34 / 909-43 32 24

ARISTERRAZU
Jatetxea

San Pedro ☎ 83 45 21

KANUA

Festak ospatzeko
kategoriko lekua

☎ 83 43 22



**Urriaren 1ean
alar mordoa
ibili zen
Zaragozako
kaleetan
barrena.
Hemen
azaltzen
zaizkigu
Pilarika
urreko
plazan.**

75 lagun ibili ziren Zaragozan barrena

Urriaren 1ean, asteazkena, Aiako udalaren babesean Zaragozara bidaia antolatu zen herritarrentzat. Nahiz eta kilometro asko izan, sekula baino jende gehiago animatu zen, eta bi autobus bete jende abiatu ziren bertara, hain zuen ere, 75 lagun.

Zaragozan gidari bat zuten zain, Pilarreko plaza inguruko kaleak eta etxeak erakustea gain bertako historia pixka bat kontatzeko.

Bazkal ostein elementu zaharrak eta modernoak uztartzen dituen plaza izugarrian bueltatxoa emateko ere denbora izan zuten eta, nola ez, hain farnatua eta ikusgarria den basilika ezagutzeko.

BERRI LABURRAK

ESKU LANAK

Abendua bitartean eskulan mota asko ikasteko parada duzue kultur etxearen. Taldetxo bat animatu da portzelana errusiarrak, pintura telan, egurrean... ikasteko. Astearte arratsaldetan elkartzen dira hiru ordurak, eta tokia dago animatzentzat.

ANTXON GOMEZEN LIBURUA

Pagoetako parkean basozain lana egiten duen Antxon Gomezek bere

lehen liburu argitaratu du. "Abere madarikatuak" izenburua, rekin sei ipuin biltzen dituen liburu honetan, abere ezberdinak dira protagonistak. Urriaren 23an egin zuen aurkezpen ofiziala eta 31n Aiako kultur etxearen.

TABERNA BAT ITXI, BESTEA IREKI

Kanua jatetxea azaroan itxitia egongo da eta Aldapa berriro ireki dute itxura alai eta gozoarekin.

AIAKO LEIHOA

Aerobic

Goizeko bederatziak dira. Ohetik altxa eta komunerantz abiatu naiz, beste hainbat gauzen artean aurpegia garbitzeko asmoan, ea horrela behingoz esnatzen naizen. Astelehenero bezala, aerobic-eko klaseetara joaten den pertsona horietako bat naiz, eta baita, asko kostatzen zaien horietakoa ere. Baino buelta gehiegiz eman baino lehen, pereza izugarria ematen baitit, etxetik irten naiz nire klase santi horretara.

Gaur, astelehena izan arren, taldeko gehienak hurbildu gara, eta hasi ere hai, berotze ariketekin.

Baina "txunpa-txunpa" musika mugikorra —martxosoa— gero eta azkartago doa eta baita nire bihotza ere. "Linea, dos uves, tres rodillas, brazos..." koordinazioa ere eraman behar da eta, batez ere, erresistenzia eduki.

Oraintxe klase erdia pasa denean, lur jotan nago, kalte egingo zidaten atzo gaueko tripariak!.

Maia ere, ez naiz bakarra. Ezkerrekoak ere gorri-gorri dago eta eskubikoak, aldiz, Kilometroak-eko kamiseta busti-bustia du. Askotan pentsatu izan ohi dut zer-kristoiar etortzen naizen ni hona: modan dagoelako kirol hau? Ea ihtar eta atzealdeak behingoz pixkat jaisten zaizkidan?

Ez Perezaz etortzen banaiz ere, behin hemen nagoeñean, benetan ondo pasatzen dut, bai kirolagatik eta baita gure artean dugun giroagatik ere.

Gainera, positibo izan behar da. Behin klasea amaitu eta dutxatu ondoren, zoragarri sentitzen naiz, sakrifizioak menezi izan dueña pentsaluz.

Eta orain, bururatzen zaidan gauza bakarra zera da: primeran sartuko litzaidakeela kafesne bero-beroa krosantxo batekin. Zergatik ez? Jakina, bihartik aurrera dietan jarriko naiz. Benetan!

Aerobic-eko taldekidea

A LTXERRI

Jatetxea

Telefonoa: 83 07 62



Benta Berri
Eguneroko menuak

Aitzpea, 14 Tlnoa: 83 42 75

SEGA

ezkontzak, bataiodak,
jaunartzeak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

Marina Lertxundi

'Salatxok denbora kendu bai, baina baita asko eman ere; dena eman dit'

Salatxo abesbatza ren zuzendaria da sortu zenetik eta 4. urtean egitera doa. Urtebetetzea, bidaia batekin ospatzeko asmoa dute, uztaila aldean. Beste hainbeste urtetan Salatxorekin jarraitza gustatuko litzaiok, bere lanaz maiteminduta dagoen zaraustar honi.

NERE MANTEROLA

Nor da Marina Lertxundi?

Salatxo abesbatzako zuzendaria. Koruko zuzendari izateko goi tituloa duena. Arretik, solfeoko titulua nuen eta aurten, ekaimean ateradut beste hori.

Nola sartu zinen musika eta koralen munduan?

Musika betidanik gustatu zait. Zazpi edo zortzi urte ntuenean hasi nintzen Maria Barbara Arangurenkin. Nire ustez, hau izan da musika arloa Zarautzen izan den irakaslerik onena. Betti merke, dementzako posibilitateak eskainiz, denentzako prest; oso ona. Ezkontzean, Iruñera joan nintzen, han jarritu ntuuen ikasketak eta gero, berri. Donostian bukatutu ntuuen, Betti

*Koruko artean eztabaidak eta rollo txarrak daudenean asko sufritzen dut'



musikari lotua ibili nitz, egia esan.

Nola etorri zinen

Oriora?

Orain lau urte Zarautza etorri nintzen bizitzera. Tuteran zazpi urtez bizi nintzen. Musika Eskolara bidali nuen nire curriculuma eta Xabier Lizasok deitu eta lanean hasi nintzen.

Nola sortu zen

Salatxo abesbatza?

Lanerako gogo handiz etorri nintzen. Xabier Lizasok koru bat sortzeko gogoa azaldu zidan. Lehenago koru parrokiala bazegoela, baina desegindu zegoela eta gogo hori zuela. Detaldi bat egin genuen eta jendea uzaldu egin zen. Horrela hasi ginen.

jendea sarizen eta sartzen joan zen eta orain, azaroaren 22an, Santa Zerbitza egunean, laurte egingo ditugu.

Balora ezazu orain arteko ibilbidea.

Ona. Lehenengo bi urte eta erdietan ostiraleko solfeo ikasten ibili ginen. Orain ia gehienek solfeoan maila berdinetsua dute. Denak, batzuk azkarrago bestek mantxoago, notak ondo irakurtzeko gai dira. Nik hori nahi muen, guztiak gutxi gorabeherako maila berdin da izatea. Astean bi entsaio egiten ditugu, lehenengo ahots-soka bakoltzak berea eta bigarrena entsaio orokorra da, denak batera. Helburu nagusia kampora ateratzea zen.

kontzertuak kanpoan egitea. Beste helburu bat san Pedro eta san Nikolasetan elizan kantatzea zen. Eta hortegin dugu orain arte.

Zein izan da Salatxo-rekin izan duzun momenturik onena?

Ez dakit, denak dira momentu bereziak. Autolera joan ginenean ondo egon zen. Proba-tzera bakarrik joan ginuen, ikustera, Bigarren saria jaso genuen eta derrigorrezkoa zen obraren interpretazio onenaren lehenengo saria. Ez genuen espero eta oso polita izan zen. Arizai. Onaren Katedralean abestea ere oso elegantea izan da. Azagan ere ondo, Italiar ere bai, Aian ere, nahiz eta lau katu bes-

terik ez jasot kontzertuera, baina berezia izan zen.

Momentu onak ez dira kontzertu onenak eta sarirer bat irabaztean bakarrik izaten. Aurten adibidez san Pedro egunean Tu es Petrus kantatu dogunean jendea oso emozionatuta zegoen eta hori nabaritu egiten da, eta berezia izan zen. Momentu on asko izan ditugu. Daukagun giroak ere asko laguntzen du. Hiru belaunaldi daude koruan, 15 urtekoak dira gazteenak, gero nire kinta inguruko jendea dago eta gero helduagoak. Bakoitzak badu bere taldea, baina nahiko ondo molderatzen gara. Harreman ona dugu. Entsaiotara eta jende gutxi faltatzen da eta hana gustora egiten dugu.

Eta txarrenal?

Koruko artean eztabaidak eta rollo txarrak daudenean asko sufritzen dut. Gaitzki kantatzea adibidez, ez da une txar bat, hori esperientzi bat du, horrek ikasi egiten da.

Koruan abesterako garaian zer da gehien balaratzen duzuna? gogoa, sainatza, ahotsa, belarría...

Gogoa. Gogoarekin, konbenizituta nago ahotsa ateratzen dela,

belarria egiten dela eta kantatu egiten dela.

Kantuak zer eskaintzen dio pertsonari?

Lehenago askok ez zuen kantatzen, hasieran askok buila egiten zuen eta horik kantatzea ez zela ikastetik hast ginen. Esaminatu nintzen egunean kontzertu bat egin behar genuen examinarako eta han beste koru batzuk ere bazeuden. Gizonek esan zidaten orduan konturatu zirela guk suabe abesten dugula. Tenor batek horiesatera bereizten duela zer den

buila egitea eta zer kantatzea izangaria da nireizat.

Salatxok ba al du momentu hauetan bere martxa oztopatzten duen zerba!

Ez. Agian astakeria da esatea, baina ez. Nahiz eta lokalik ez izan jarraitu egingo dugu. Toki pixka bat behar dugu, ze hemen ez gau de kondiziota, 53 laguneko taldea da gurea eta bere beharrak kontuan hartu beharko liratekeela usdudut, inorekin komparatu gabe. Entsail oorokorrak ikus-

'HERRI HONETAN GEHIEN ENROLLATZEN DENA DON ANDRES DA'

tekoak dira, ez gara sartzen. Eskerrak Don Andresi. Beti uztendugu eliza eta gu ezgarakorru parroklala. Lokalarekin, horretan ari direla esan digute orain eta zain egen behar.

Gizonezkoen falta ere aipagarria da...

53rik 16 bakarrik dira gizonezkoak eta beti etorzen dira. Baina horietako 2 edo 3

falta izanez gero, zeharo deskonpentsatuta geratzen gara.

Koruko jendeak komentatzen dit badagoela jendea sartuko litatekeena, baina beldurra daukana diagonezko hau urte daramatzagulako. Nik Jende horri solfeo ez jakitea berdin dela esango nioke, gogoa bakarrik behar dela eta ez pensatzeko maita altua dela eta egin dutela sartu. Gizonak animatu nahiko nituzke, ondo pasatzen dugula eta etortzeko ikustera.

Zer kendu eta eman dizu Salatxok?

Kendu, denbora batzuetan, gehiago ez; eta eman, asko, dena,

Zein da hurrengo asmoa?

Urtie hasieran normalean egitarau guztila prestatuta izaten dut. Lau urte badiira batek Naharro-kantatza eskatzen didala eta ha-

sieratik horrekin hast gara eta. Vo pensiero pieza oso ezaguna, kantatuko dugu. Itzulpeta ikuscan san Nikolase-tarako egokia ikusi dugu, Don Andresi eskaniko diogu, ze herri honetan gehiena enrollatzen dena Don Andres da.

Lana desberdina da haurrekin!

Bai. Haurrei ez diet hainbeste eskatzen. Musikari, kantuartugus-toa hartzea bakarrik izaten da nire helburua. Lan hori ondo betez gero, mantendu eta zaharretara pasatzeko. Salatxo Txikirekin bi urte egin nituen eta pena pixka bat eman dit uzteak.

Zer moduz doa baziideen kontua?

Gehiago behar ditugu. Norbaitek interesa badu koruko norbaitekin hitz egitea besterik ez du. Herriarentzako korua izatea ona dela eta laguntza pixka bat ematea ere behar dela uste dut. Gutaz gain hogeiaren bat baziide tzango dira. Oso gutxi da. Urtean kantatzen



BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko razio bereziak

Tel 13 30 14

ZUMINTZA

- Thapaindegia - Estetika
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

Tel 83 00 89

ODITZ

Horma zabaleko oinetakoak
Gizon eta emakumeentzat

Pintura
orokorrean eta
enpapelatze
lanak egiten
ditugu

Inaxio Andres
ORIZU, SL
Iturbide 12, 4. C
83 20 69
909 40 58 98

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI, 2
Tfnoa 83 10 86

ditugun bi meza horiek gustora entzuteagatik bakarrik, merezi du ordaindu beharreko kuantitatea. Jende gehiago behar dugu.

Emaiozu herritar bat sozio egiteko arra-zia!

Musika gustatzen bezala, herriak kornbat dagoelako eta gurea entzusteko aukeraz gain, kampokoak ere ekartzen ditugulako. Musika gustatzen ez zaionari 3.000 pezetarekin 53 laguneko taldea eta kultura mantentzen lagintzen duela esango nioke.

Zein da lanbide honetan zure helburu pertsonala?

Jende honekin beste bost urtez jarraitzea gutxienez. Orfeoia zuentzea edo horrelakoaren bat gustatuko litzaidakela pentsatuko du norbaitek; ez dut esango ezetz, baina ez nauobsesionatzen. Nire lana asko gustatzen zait. Korua nirekin sortu da eta ondo edo gaizki nirekin doa; orkestra batekin zerbaite egingo nuke egunen batean, baina ez betirako. Gus-

tora-gustora korua eta orkestra, biak batera, J.S. Bachen *Pasión* san Joaquin liburutik zuenduko nuke.

Pianoa, eskusoinua eta gitarra jotzen dituzu. Instrumentu bakoitza zein momentutan?

Eskusoinujole kendu. Pianojolea naiz, eta gitarrabildanik jo dut. Gitarrarekin meza guztietan jotzen nuen eta irakasleak kimika horregatik aprobatu zidala uste dut. Gitarra jendearekin lotura sortzenko egokia dela iruditzan zait. Pianoa ezberdina da, une intimoagoetarako da. Pianoa hartzean, improbisatzea gustatzen zait gehiena. Folklore ere asko gustatzen zait. Norbaitek pentsa lezake goi mailako titulua izanda, folklorea gutxietsi bezela egiten dela. Egia da batzuk baztertzen dutela, baina ez da hori nire kasua.

Nola ikusten duzu Orio kultur mailan?

Ondo. Dantza taldea, KARKARA, korua. Musika eskolako hainbat gal... Den herri txiki-

'Gaisi bat' erisko kantu zaharra armonizatu zuen. Marinak eta oso gustora geratu zen. Horrelakoren bat berri egitea gustatuko litzaiokleen arren ez omen du denborarik eta beldur pixka bat ere badu ez ote zion hain oder geratuko.

rako ondo samar-ikus-ten dut. Jendeak zer-bait egin nahi badu bidaunka aukera hemen-dik atera gabe egiteko.

Hain abestari onak al gara euskaldunak!

Asko aldatzen ari da gizarte eta orain lehen



batno gutxilago kanta-tzen da. Tabernara sartu eta ezin duzu hitz egiten hasi ere, bestela eztarria bertan utzik duzu. Eta oso importan-tea zen kalean kanta-tzeko ohitura hori, gusta eta erraztasuna iza-teko. Ez dakit zer egin

litekeen hori berresku-ratzeko. Ondo kantatzen dugu baina ez hainbestera. Adibi-dez, santa Zezilia egunean kalez-kale kantu-uan artizten gara kont-zertu informalago bat emanet eta jendearen-gana hurbiltzeke, horrelakoak berreskura-tu behar dira haurrek ere naturaltasunez en-tzun behar baitute mu-sika.

'GIZONEZKOAK ANIMATU NAHI NITUKE, ONDO PASATZEN DUGULA ETA ETORTZEKO'

**URANGA
BURDINDEGIA**
EUSKO GUDARI, 7
TFNOA 83 12 36



Balearen kalea, 2 Tfnoa: 83 38 04

**IRADI
AHOLKULARITZA**

Alta Leriundi, 33 Telefax 13 46 96



Pelotari, 1 6 83 25 65

- HANALDEko kide (HAragi NATurale-ren ALDeko Elkartea)
- Kalitatezko haragia. Guk hazitako txekorrik. Txekorren jatena garantida duna da (ISO 9001)
- Guk egindako txarkuleria: txorizoak, urdaia zpiakoak, solomoak...
- Lehen saria Beasain eta Tolosako Odolki Lehiaketetan

GABON
Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Telefona: 83 06 09

ELBARRIAK

Oztopo eta ezinen gainetik

Kalean barrena ibiltzeko inolako arazorik ez dugunak ez gara, normalean, konturatzen nolako suertea dugun. Eta ez dugu gogoan izaten edozein momentutan alda daitekeela hori: nahikoa da ezbear txiki bat -istripu bat batzutan, gaixotasuna bestetan- egoera errrotik aldatzeko.

ANA G. DE TXABARRI

Elbarri geratzea ez da tranze erraza izango. Baina, behin gertatu denean, aurre egin behar zaio eta pertsona normalentzategindako mundu honetan moldatzten ikast. Jende asko ez da konturatzen zenbateraino zaitzen diren gauzarik errazzenak elbarrientzako gurdi batetik begiratuz gero,

Hori azalku nahi dugu guk erreportaje honetan. Elkarrizketatu ditugun gure bi lagunekin egon eta gero, gainera, beste kontu bat ere iruditu zaigu nabarmenzeko moduko: nolako adorea duten gure ondoan bizi diren batzuek, zalapartarik gabe eta unore onenean, oztopo guztien gainetik ibiltzeko; setati, baina, ahal dutenean, denarekin disfrutatuz.



FLORENTINO GENOBA

Florentino Genobak urtebeteko zeukan hankak mugitze-ko ahalmena galdu zuenean, poliomielitisak jota. Hala eta guztiz ere, oinez ibiltzen ikasi zuen eta igeri egiten ere bat; Mariamastrarenean hasi zen eskolan eta ez zuen beidurrik izan txuhupan sartu eta lagunekin arraunean egiteko. Ez da sekula diferentea sentitu eta beti egin izan du bere lagunek egiten zuten ia guztia. Laguntza behar izan duenean, beti izan ditu lagunak ondoan.

Txikitatik ezagutzen dut nik, bizilagunak izan baikara —kolradian bizi zelako, alde batetik, eta zapateria ere gure tabernaren aldamenean zeukalako, bestetik—. Nik ere, zuek bezalaxe, beti ikusi dut gurpilako aulkian. Zapatero izan zen jubilatu arte eta onduan ezagutu zituen hobeto elbarrien taldeak eta mundua.

Mugitzeko duen aukera txiki hori beti aprobetaxatu izan du eta berezkoak dituen sasoia, kemenetik indorrak asko lagundu diote ondo baino hobeto moldatzeko bere buruarekin.

Pasa behar izan dituen zaitasunek ez dute lortu egoskortzea edo negarri bihurtzea, guztiz komitakoa baitik.

Florentinoren ustez, zaitasunek gauzel buelta asko eman eta ondo perntsatu beharra sortu diote eta, horregatik.

Zaitasunek bere buruan duen konfiantza handitu omen dute eta, baita ere, gauzak bestetik modu batera ulertzeko gaitasun handiagoa eman omen diote Florentinori.

Itx, potxada izaten ikasi omen du. Berrogeita hamabost urte ditu eta gustora sentitzen da bitztarekin: zoriontsua izan omen du.

Pena bat besterik ez du: oinez ondo egiteko zaitasunak galarazi dio itsasoan ibiltzea, arrantzale izatea; eta hori bai, hori bai bihotzean sartuta dantzan arantza.

JABIER PORTULARRUME

Jabier Portularrume orain dela 50 urte jalo zen Pagoederra—Poorra—baserrian. Sei urterekin poliomielitisak jota geratu zen elbarri. Santioko eskolan hasi berria zen eta utzi egin behar izan zuen. Hamabi urte bete arte ez zen baserritik atera. Orduan, Madriden, Tolosan eta Toledon izan zen errehabilitazio eta ikasketak egiteko elbarrientzat zeuden zentroetan. Oinez ibili juxtu-juxtu ibiltzen zen, ia erabat geratu arte.

ITB enpresarentzat lanean aritu zen baserrian. Orion lokal bat hartu arte beste 3-4 lagunekin. Gero, Kosta talde-tretara joan ziren eta han edozein langilek egiten duenaren moduko lana izan zuten, aseguru eta guzti, zenbait enpresarentzat: Moulinex, Ikusi, ITB... Horregatik, Elbarritsun Handiko pentsioa esku-ratua ahal izan zuten.

APARTEKO ZAITASUNAK

Egunero ikusi eta egunero agurten dirugu; baina, gurearekin konparatuta, oso bizimodu diferentea daramate elbarrieik. Guri moiz ere burutik pasako ezzatikigun oztopo eta zaitasunekin topo egiten dute edozein lekutan eta, gau-

za horietarako, gehienetan, erabat itsu gara gu, oinezko normalak. Arreta pixka bat jarri zego, asko eta asko erraztu dezakegu elbarrien bizitza.

Kutxara joan, tidaletxeen paper batzuak eskatu, bibliotekan liburu bat irakurri edo handik hartu, medikuarengana jo gaixork bagaude, kalean lasai paseatu... ez dute aparteko problermari gureizat. Baino begira:

Oinoko Udaletxeak ez du biderik elbarriak hartzeko, beti esklasseren batetik topo egiten dute. Besteok bezala ordaintzen dituzte zergak, baina han ez dago lekurik berentzat. Botoa emateko, hauteskundeetan, mahaiko presidenteak kutxa hartu eta kangoa eraman behar die. Ez daga zuzalurrie, dio Jabierrrek, baina zure burua nabarmendu behar duzu beti eta ez da atsegina.

Egiten ari diren kale berrietan gauzak txukun daudela diote biek: espaloi zabalak, arranpla ederrak... gustua ematen du. Bestelakoak da kale zaharren egoera. Arranplak jarrita daude; hainaz, askotan, estuak dira eta karroarekin maniobra egitea oso zalla da. Gainera, oriotarrok ohitura handia dugu bertatik bertara mugitzeko ere autoa hartzeko eta, sarritan, arranpla horien pare-parean uzten dugu automobilea, elbarriek bidea itxiz. Halakoetan, elbarriek atzera jo eta doble ibili behar izaten dute.

Antzeko gauza gertatzen da moilan. Oso gustora dago Florentino jarri dituzten burni eta ikateekin, lasaiago jonten baitira automobilengandik aparte, baina... burni bat gehiago ez jarri zaguatik, sarrera itxita geratzen da askotan, autoak hantxe aparkatzen dutelako. Gehienetan, sarbidean oztopo egoten da eta orduan... bide erditik ibili behar!

Paseatu, lagunekin ibili... abentura edo amesgaiztea dira elbarrientzat.

Eta komunera joan behar izanda? Lantegi zaila dute Oinoko elbarriek. Komun pu-

Jabierrizko
gustatzen
zai
lagunekin
jokuan
sitzzen edo
kafetxo bat
hartzea.
Taberna
berrietan
bidea libre
aurkitzen
du.



blikorik ez dago eta tabernetako komunitan ez dantza sartzerik ateak estuegiak dirrelako anukia pasatzeko. Hori dela eta, etxeraino joan behar izaten dute beti.

Kosta taillerrean badago elbarrientzat prestatutako komuna eta Udalari eskatu ere eskatu omen zioten txukundu eta irekitzeko. Hamabost egunean erantzuna jasoko zutela esan zien Udalak... orain dela zazpi hilabete.

Zorionez, taberna berrieik badute arranpla jarrita eta horietan sartzera badaukate, lagunekin batera kafea hartzera.

BERRIA BAI, BAINA ALPERRIK

Baina arauak ez dira betetzen, adibidez, gure Kultur Etxe berri-berrian. Batetik, elbarrientzako arranpla atzeko aldetik dago eta ate hura beti itxita izaten da; hau da: arduradumari deitu behar zalo irekitzeko. Nola deitu eskailera? Ikerkitzen badu, arranplak ez du barandarik eta, goiko aldean, altu samar

geratzen da. Aulkia-rekin goraino allegatu eta gero, ezinezko egin zaio. Jabierritako sartzeko bira egitea! eta, beraz, ezin izan du bibliotekara joari. Ezin izango luke Karkara taldekoekin lag egin, ez eta hitzaldiren bat aditu, ez eta... jar ezazue tarte honetan nahi duzuena.

ANBULATORIOKO PENAGARRIKERIA

Hala eta guztiz, eta horretan biak daude benetan haseurre, gauzarik gogorrena anbulatorioan gertatzen denea da. Sartubai, ataristik sartzen dira, baina eskailerekin topo egiten dute. Badago aszensorea, baina zutik dagoen pertsona batentzat bakarrik balio du, hain da estua! Medikuari deitu, hererajalsiarazi eta guztien aurrean egiten dute kentsulta, ez dagoelako gelatxo bat bera ere diskreto minimoa izateko. Lotsagaria benetan. Itsas Etxea egiten ari zirenean, eskatu omen zuten aszensorearen konpontzeko. Alper-alperrik.

Kutxako bulegoan prime-

ran moldatzen dira. Ez, ordea, Laboralean. Egin zuten eskaera —leku publiko guztia— hartuta baitaude legez sarbide egokiaz izateko— eta ate ondoan dagoen zapaldatxo jaari zieten; hala ere, ez dira leihaitzalera allegatzen. Herriko beste banketxeetan ezinezkoen egiten zale aita pasatzea ere.

Kezkatuta daude hondarria inguruko pasaleku berria eta guzti hori nola utzik duen pentatuz. Baldinbaitere ondo egingo dituzte gauzak eta ez da okerrik izango! Oso importantea baita elbarrientzat aire librean lasai ibiltzeko atukera izatea, etxe zokotan ez geratzeko, lehen gertatzen zen bezala.

BIZITZA NORMALA NAHI

Kexa eta altzaki, oztopo eta ezina, nagusi izan dira beren bizitzan, baina ez dira mainatik, ez horixe. Arrazoi handia dute gutxienezko gauzak errazteko eskatzen dutenean.

Bai Florentinok eta bai Jabierrrek, biek, eskatu didate honiako hau jartzeko: jendea benetan oso borondate onekoa eta, alsegina izaten dela normalean, hor ez dagoela arazorik —betiko harroputzaren bat kenduta—, baina bakarrak moldatzea, besteak bezala alegia, hori besterik ez dutela nahi: bizitza normala egin.

**'JENDEA OSO BORONDATE ONEKOA ETA
ATSEGINA IZATEN DA NORMALEAN, BAINA
BAKARRIK MOLDATZEA, BESTEAK BEZALA
ALEGIA, HORI BESTERIK EZ DUGU NAHI:
BIZITZA NORMALA EGIN'**

EUSKALDUN

berriak



Maribi Morey


Zarautzen jaiotza da, gurasoak gasteiztarra ditzatela eta Gasteiza joatean hango lehengusuek «aqui viene la vasca» esaten omen zuten, nahiz eta berak euskara ez jakin. Berak Santa Añan ikasi zuen eta han guztia gaztelera egiten zen.

Ezkonduta eta gero, murrenko haurra etorri baino urte bat lehenago, hasi zen euskara ikasten. 22 urte izango zituen. Haurrak hizkuntza amarekin ikasten zuela entzunda zuen, eta pena ematen zion haurrek beregatik euskara ez jakitea. Orioko gau eskolan hasi zen eta denboraldi batean Usurbilera ere joaten zen. Haurra etortzean harekin euskara hasi zuen harremana eta nahiko ondo moldatzen zen. Kaleko jendearekin, ordea, lotzatu egiten zen.

Orain dela 21 urte bere eguneroko bizitza guztia euskara egitea erabaki zuen ondo ala gatzki.

Haurrak pixka bat hasi zirenean, estudio giroan gustora aurkitzen zela eta, euskal filología ikastea erabaki zuen. Ikasketa hauetan, bere burua pixka bat behartu, euskara jantzi eta beste saltotxo bat emateagatik aukeratu zituen. Izugarrizko kolpea hartu zuen lehen urtean, euskerazko beste maila batekin aurkitu baitzen: subjuntivo asko, aditz trinkoak, hitz teknikoak... Udara hartan ikastaro intentsibo bat egin zuen han bertan, eta aurrerapen handia egin zuen. Hirugarren mailara iristean, Andoni jaiotza eta horixe geratu zen.

Zallena zer den galdeitu diogunean, hau erantzun digu: edozein momentutan erderara jo dezakezula jakitea, aurrean duzunak gaztelera badakilea jakitea eta estuasunean aukiztean, askotan, gaztelerara pasatzeko aukera hori izatea.



LIBURU KRITIKA

Abere madarikatuak

Antxon Gomezen aurteneko liburua

Antxon Gomez gasteiztarra aspalditxoik bizi da Alai: Iama Pagoetako parkean egiten du, basozain. Ezagun du Antxonek basapiztiengandik gertu bizi dela. Ondo ezagutzen ditu, ezagutu ezezik maitatu ere bat. Maitasun horretatik eta idazteko daien zaletasunetik sortu zitio bere lehen liburua, *Abere madarikatuak*. Ipuin bilduma.

Basapiztiak dira liburuko narratziotako protagonistak. Antxonek dioenez, *Euskal Herriko basapiztien inguruko hauriarketa literaria da sei ipuineko bilduma hau eta basapiztia horiek gure kulturaren izan duten garrantziaren aildarrikupena*, izan ere desagertu zaitziguenean, gure kulturaren zati bat ere —mende askolan horien inguruan sortutako sinismenak, mitologian bereziak eta gisa horretako kontuak— desagertu egiten dira.

Liburuan basanimalien eta gizakien arteko harreman gatazkatsuak aztertu ditu eta horien gainean sortu den mundu mitologikoa. Horretan asko lagundu dio basozain izateak eman dion esperientziak. Informazio osikor jaso du beserriteriei eta elizariel entzundako kontuen bidez.

Otsosi, hartzia, gepardoa, azkonarra eta itsas txakurra dira basapiztia horietako batzuk. Itsas txakurra edo foka protagonista duen ipuinak, Irlandako itsas txakurra, honelaxe hasten da: *Argazki armata batu ez da jendearentzat Orioko Kolon Txiki tabernako hormari eskegita dagoenra, duela urte batzuk gertatutako pasadizoaren ordegarria, herriko bapore bateko arrantzaleek sare peligro batean trabatutako foka salbatu zutenekoa*. Eta, hasi eta bukatu ere Orion egiten da ipuin hau, protagonistak Irlandan barrerra ibili eta gero: *Kolon Txikiako argazkia berriak ikuskeria joan naiz gater...*

IÑAKI ITURAIN

ALKAR

Alkar, elxé eta arrantza elkartea 1958ko martxoaren 7an ireki zen. Datorren urtean ospatuko du, beraz, 40. urtemuga. Azken 22 urtetan bertako bazkide den Balentín Aldalurrekin egon ginen hizketan.

Eli Lasa

Herriko zaharrena den elkartea honen sorreran gazte talde bat zegoen. Elkartzeko tokia bat nahi zutela eta, Udaldexeari lokala eskatu zioten. Hogeita hamar bat gazte izan ziren lehendabizi elkartu zirenak eta lan egia zutenak Udalak utzitako txoko hura txukuntzen eta egokitzten sozialde bilmurteko.

Lokala udaletxeko sotoan dago. Orain leku guztia erabilten badia ere, hasiera batetan zati txiki bat besterik ez zen erabiltzen, kartzela izandako tokia. Urteen poderioz eta arrakasta ilusioz, aldaunen zegoen oilegria eskatu zioten udalari eta erreinta batzen truke lortu zuten lokala handitza.

1974. urtean ohra egin zen, baina berehala geratu zitzaien txikia sukaldea, gero eta bazkide gehiago zirelako. Orduan, aldaunen beste zati bat li-

bre zegoela eta, hura ere esku zuen. Baina oraintsoan, erreña ordaintzeaz gain beste baldintza bat ere jarri zieten elkartekoen: herriak kirol eta kulturaren zerbaile antolatzenean laguntza ematea. Eta horrela izan da orain artean.

Berriro obra egin zuten, sukalde ederra jarri eta soziedadea handituz.

BAZKIDEAK ETA JUNTA

Hasiera batetan 30 bat lagun izan ziren elkartea martxan jarri zutenak. Une horretan 85 dira eta topea jarria daukate, 90 lagunekoa. Bete beharreko baldintzak honakoak dira: herrian enpadronatuta egotea, 18 urtetik gorako gizonezkoia izatea.

Oborezko bazkide bihurtzen dira 65 urte betetzen dituztenean, eskubide guztiak

mantenduz baina kuotariak ordaindu gabe. Bazkide berriek 20.000 pta. ordaindu behar izaten dituzte eta urte-roko kuota, berriz, 15.000 pezetakoa da. Orain dela bi urte eztabaibatu omen zen emakumezkoek bazkide izaterik ba ote zuten edo ez, eta ezezkoa erabaki zen, baina sarrera libre dute, bat afaltzeko, bat sukaldean sartzeko bazkide batelkin joan ezker.

Junta, berriz, 10 gizonek osatzen dute, eta karguak urtero aldatzen dira. Lehendabiziko Junta honakoek osatu zuten: Leopoldo Arruti—presidente—, Inazio Iztueta, Antonio Arrizabalaga, Manuel Ariztimuño, Jose M. Manterola, Manuel Lizaso, Manuel Orbegozo, Joakin Azpiroz, Jose Agustín Egaña eta Ramón Lerxundi.

ANTOLATZEN DITUZTEN EKINTZAK

Festetan zaharrentzako bazkaria prestatzen dute urtero eta, horretaz gain, festak hasi aurreko igandean usoku-me tiroketa antolatzenten dute —XIV.a izan da aurtengoa— eta baita chizko lehiaketa beretza ere: faisanak eta galeperrak botatzen dituzte. Arreta Mendiganean. Bestalde, urritik azaroa erdirarte chizko postuen sorteara egiten dute. Elkartearen eskuetan diago Iturrioz inguruoko 23 postuak prestatzea eta txukun mantentzea.

Bukatzeko, Balentínen esan zigun, azken obra martxoan bukatu zela. Dena berri dute eta benetan erakargarri diago, 15 kilo gaztan batera, erretzeko modukoa burruztzia eta guzti.



Bertako bazkide
batzuk afalondoren
"harrapatsu"
genituen.

DORRONSORO
JANARIDENDA

Abeslari, 3 ☎ 83 09 37

G O I Z E K O

Alta Lerkundi, 33
Telefonia: 83 28 55

- KAFETEGIA
- IZOZKIAK
- CROISSANDEGIA

pasteleriako
enbarguak
hartzen ditugu



Ane Azkue Alberdi duzu argazkiko neska motza. Urriaaren 6an jaio zen eta ospitalean bertan egindako fotos da.

Zuok ere zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia —edo ezkontzakoa— txoko honetan argitaratzen nahi baduzue, bialduiguzue eta jarriko dugu. KARKARAren buzoian utz dorakizue edo, bestela, taidekorren batu oman. Bat baino gehiago iristen bazaigu, lehenbizi alegatu zaigunak izango du lehentasuna.

JAIOTAKOAK • HILDAKOAK • EZKONDUTAKOAK

ORION

Jaiotza

Eneko Elizondo Romeral, umaren 4an

Ane Azkue Alberdi, umaren 6an

Hill

Jose Luis San Sebastian Brit, umaren 2an, 42 urte.

Pedro M. Irazeta Lertxundi, umaren 9an, 85 urte.

Ezkondutza

Jose M. Genoba Lertxundi eta Nere Orbañanos Zabala, umaren 4an.

Patricio Bravo Becerra eta Arma Guridi Lasa, umaren 18an.

Felix Urain Makazaga eta Garbiñe Muguruza Piñabea, umaren 25ean.

Kandido Manterola Azkue eta Miren Xubero Ubillos Apaolaza, umaren 25ean.

AIAN

Jaiotza

Maribel Aldar Salaberria, umaren 14an

Hill

Luis Lizaso Balerdi, umaren 4an

Javier Albitu Larrañaga, umaren 16an

Ezkondutza

Jose Frantzisko Uzkudun eta M. Purificación Ondozola, umaren 19an

zorionak

Ostargi taldeari eta Kamel Zianiri

Ez da marka makala 130 emakume bitzea ikastarotan. Ihork gutxik biltzen du horrenbeste jende Onon eta, beraz, ondo merezita dute Ostargi taldekoek gure zorionik beroena.

Bestalde, KARKARA bukatzen an ginenean intsi zaigu honako berria: Amsterdameko Maratoian bigarrena izan da Kamel Ziani eta, gainera, oso marka onarekin (2h 10m 18s). Ezin, beraz, geratu Kameli ere zorionak eman gabe.

zoriotxarrak

Herriko trafiko arduradunei

Autoak baterian aparkatzen dira orain Arrantzale kalean eta, Eusko Gudan kaletik zatozenean, bidea eman behar duzun ala ez jakiteko, nahitanahieze oso aurrera eraman behar duzu autoa. bestela ez delako ezertzeko ere ikusten. Dagoeneko: kolperen batzuk izan dira motibo horregatik.

Zonotxarrak emateko modukoa da, baita ere, Arraun Klubak hemiko tabernatan, Korta badoala-eta, jari dituen kartelak, erdaraz baitaude; baina, tira, ez dirudi oraingoa klubaz zinkatzeko momenturik egokiera eta bere hometan lagako dugu.

Orain dela... .

25 urte

Urrian, normalean, estropadarik izaten ez bada ere, 1972ko urriaren batean oso estropada berezia izan zen Kontxako badiian, hilabete batzuk lehenago istripuan zauritutako Luxiano Manterola eta Joxe Ramon Lizarralderen aldekoa jokatu baitzen. Estropada horretan Oriok, Astillerok, Getariak, Lasartek, Kaikuk eta San Juanek hartu zuten parte. Irabazitako dirua lehen aipatutako bi arraunlarien zat izan zen.

Garailea Astillero izan zen eta, gainera, errekorra ezarri zuen 19'38" denborarekin. Bigarren, Getaria izan zen eta hirugarren Orio, Atzetik, Lasarte, Donibane eta Kaiku sartu ziren orden horretan.

Estropada horren emaitzak denboraldi osoan gertatutako baiezktatu zuen; Astilleroren urte ona eta Orioren krisia, hain zuzen ere. Oriok Kontxako bandera besterik ez zuen irabazi eta horren arrazola La Voz de España egunkariaren arabera ondorengo hauetan izan zitezkeen: istripua izan zuten lau arraunlarien baja, batzuen egoera fisiko kaxkarra eta arraun elkartean

izandako tirabirak. Tirabira horien ondorioz Korta Joan egin zen Oriotik Lasarte-Michelinerara.

Beste albiste aipagarriak ere kirolari buruzko ondoren go hauetan ziren:

Esteban Azkuek brontzezko domina irabazi zuen Madridilen izan ziren Europako plater tiroketa txapelketetan.

Gipuzkoako gazteen mailako erremonte txapelketako finalean hiru oriotarrek hartu zuten parte: Azkue-Sarasua bikote irabazoleak eta donostiar batekin jokatu zuen Intxauspe txapeldunordeak.

Espaniako erremonte finalean Tarantino eta Intxauspe oriotarrek Genbe-Agirrebengoa nafarren aurka jokatu zuten, eta azken bi hauetan nagusitu ziren, gutxiagatik (42-45) izan bazeen ere.

Kirola alde batera utzita, Orioko baserritar bati tokatu zitzaien Donostjako Aurrezki Kutxa Munizipalak baserritarentzat zozketatutako esne-behi holandarra.

GURE TXOKO

TABERNA

ARITZAGA KALEA



ORTZAIKA JATETXEA

- * Bataioak
- * Despedidak
- * Jaunartzeak
- * Ezkontzak


Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 - Ortzaika

AMILIBIA taberna



- Gosarlaak
- Pintxoak
- Bokatzaik
- Kaxuelitak
- Plater kombinazioak

Arizaga, 17
Telf. 83 08 47
0800



MAKAZAGA Igeltsoritza

- ✓ Igeltsoritza orokorra, denetarik egiten dugu
- ✓ Presupuestoak eskatu konpromezurik gabe

Lan txukuna eta
merkea

83 59 00

Badoala, badoala gure Jaungoikoa

Inoz ez zait alaztuko, udalekuetan nengodia nire atak idatzizan gutun hura. "zortzi biotro harpatu nituen 46 bratzat... eta atzo onotarmak 8. postuan geratu ziren..." Hura irakurtzeen burutik pasatzitazan lehen komentario honakoa izan zen "ta nin zer amao".

Araun kontuek ez zuten niregan inolako garantziak, momentu haieran Orio lur joa batzegoen —nolabait esateazteko—

Bestalde, askotan saiat dudan argazki berri begira jartzen nintzen. Bertan ni aitaren sorkaldan esentza nago, eta albo batetik onotaren trañena agertzen da. Auskalo noskia den argazkia, ni ez berintzaren orozko momentu horretaz baina inolaz huen uertu nola egon zteneen hanbeste jende itzasa begira, muti luadrila bat sufrizten arren zen bitartean.

Baina urteek aurrera egin zitza, ni ere hazi egin nintzen, eta Korta Oriola etorriarekin batera, sita klubean tartu zen.

Urte baten bueltan, amauria besterik ez nuen entzuten-leku guretan. Ez dute nahiz batel estropadu zela, badakit, non zortzikoak mabazi egin zuela... Horrek nik amaurieneko nuen zaletasuna pitu zuen, eta onotaren defenditzalea sutsua bihurtu nintzen —bestela galdu! Zarauzko institutuan nirekin batera ikasi zuten—.

Urteik urteria onotarmak arraun munduaren ardatz bihurtu dira, eta batz gurako askorena ere. Baina, ikona, mundu horietan sartzean gauza alio ikasten dira, eta badirudi oso errata dela ALUPA ORIO esatea irabazten dutenean. Baina, normala den bezala, Korta egon den zazpi urte hautan momentu kavilarbatzuk izan dira. —Izen posituan ez inestz kaxkun bana batzuentzat —eta orduna batzuen anobik hitz itusia iben dira. Igerikoa zenaren bezala ni: "ALUPA ORIO aunque pierda" esaten duten horietakoia naz. Horregatik Korta joan arren —pera eman ditikina— uste osa dit Onick baduela indarra eta ez duela jaungoikoa behar —Kortan meniturik kendu gabe, jakin —goian jarritzea—.

Zortzamer alderantzakoa gentzuko batz, gure esku dago hauk animatzen beniz. ALUPA ORIO ETA ORIOTARRAI

Ainara Peña

KANPOAN daudenak



Angeles Lertxundi Genoba

*Angeles Lertxundi Parisen bizi da; baina, hala ere, jende askok ezagutzen du Orion, urtero-urtero etortzen baita udara gure artean pasatzen. Horrela harpatu genuen guk. Onoko etxearen Korbako bigarren estropadaren bhamamunean. Pozik zegoen Angeles. Pozik egiteku da: bi urte segidan Kontxa ibarbaz! Onerak geri eta! Aunter propria fuztu dei Onoka eginak, estropadak niri gero josteko; eta, orain, kontenutzongo da.

Herniko beste askok bezala, gera garaian utzi behar izan zuen Orio, 17 urte zituela. Aita Joxe Bento Lertxundi, PNVkoak zen, eta aurrera sarrar zebilen, gainera. Faxistek Donostia hartu zutenean, familia osaak aldegin behar izan zuen, dena atzean uzita. Ama, Serafina Genoba, Irakunekoa, ez zen sekula Onora bueltatu eta ana-arrebekako batzuk, ere ez. Zazpi senideko familia zen: Angeles zaharra, eta gazteeria, berri, sei hilabeteko haur txikia, Ixiar. Berarekin batera aldegin zuen, baita ere, Panbeska Peña Llorgatetik.

Hilabete batzuk, Bizkaian eta Santanderen ihes pasa eta gero, azkenean, Paristik, 150 Kmra dagoen herri batera joan ziren. Hain eman zituen, huseran urte batzuk; eta, gero, Lapurdiko Ziburuz jo zuten. 1950ean gurasoak eta best seme-alaba Argentinara joan ziren bizitzera, baina, ordurako, Angeles Valentziara ekonduta zegoen

Gazterik alargundu eta Pansa bueltatu zen alabarekin 1957an. 1959nik aurrera, urtero etom da Onora udaran, batere hutsik egin gabe. Hasieran hilabete baterako etortzen zen, lanean ar zelsko. Azken urteotan, behin erretiroa hartu eta gero, udara osoa pasatzen du gure artean. Valentziari biei den Guadalupe ahizparekin batera. Gustora, gainera Aspalko lagunekin jardun, posion ibil... ederik egaten geri gu hemen!

Hainbeste urtetan Euskal Herritik larpo bizi izarragatik ere, bertako edo zeinek bezain ondo egiten du euskalitz. Ez du janori galdu, batera.

Aitzpa gazteenak, biarrok, tuberna zain zuen Donostian. Argentinatik bueltatu zenean. Omoka jendea pila josten zitzaion bisitari familiak galdezka. Oso antu hortu zuten. Ordurak ikusi geruen onotorek zenbot mirentzutzen. Eskerrik emori nahi nizkiole deres, osa mi ondo portatu zean eta.

Parisen gustora bizi dela esaten du Onoka jendeak gomatoa die frantsesera eta ez daki zergatik. Amantzaean kan zuak zango du kolpa, regurueno. Bomo nik uste dei frantsesak osa ondo portatu zitro gurekin, euskaldunekin, bai gero gauaren eta bota gero ere. Burgosko prozesua izan zanean eta, jendeak ez daki hortz, edo ez di aprobiozten. Perdigonario ematen dit, guruko eguneari, automobil frantsesek ere egiten dilduteko ikustek.

Behin batean...

Imaginaren kulturan murgilduta ere, irakasleok ezin dugu boztertu betiko asmo bat: gure haurren gan irakurzaletasuna piztea, hau da, bere poza eta gozamenerako liburuak maitatzea. Iku-puntu honetatik, ipuinaren garrantzia azpimarratu nahi genuke.

JUAN ZARAGUETA
ESKOOLA PUBLIKOA

Ipuinak oso zaharrak dira, gizakia bezain zaharrak, agian. Herriak sortuak dira eta mendetan zehar herriak bizirik itaunara ditzu. Gure bizimoduaren, ohituren, jakitearen erakusle dira ipuinak. Mundu guztian ezaugarri berdintsuak dira eta zabalduak: kultura unibertsala hurren esku jartzea ahaldideratzen dute.

Horregatik, istorio kontakizunek, gure ikasgeletan leku eta denbora propios dute. Ipuinak, haurrak eta hizkuntza idatzia arteko harreman apektibo eta sortzaileak bultzatzen ditu. Era berean, irudimena suspertuz, fantasia garatzen eta atentzioa zentratzen laguntzen du.

Horregatik, egunero ikas-

gela bakoitzean irakurketa saio bat antolatzen dugu, ahaztu gabe importanteena irakurtzen ari garen istorioarekin ondo pasatzea eta gozatzea dela.

Baina, hau nola egin? Ba, hasteko, kalitatezko ipuin bat aukeratzen saiatzen gara, osorik edo egun batzuan zehar zatika kontatzeko. Une lasai bat aukeratzen dugu eta irakurketa saioa amaitu arte etenik ez egoten saiatzen gara: haurrak ixilk daude, komentarioak eta ulertzen ez dute na, bukaeran argitzen zaizkie.

Era berean, saloa amaitu arte gelaz kanpoko inor ez sartzea komeni da atenzioa galdu egiten baita. Hau gerta ez dadin eta egiten ari garena adierazteko, gelako atearen kanpokaldean, ohar edo txartel bat zintzilikatzea bidezkoa da (adib.: ez surtu, ipuina irakurtzen ari gara!)

Sainaren iraupena ez da beti berdina izaten. Hasieran, erie, denbora laburrean egoten bidira ere, ohituraren poderioz gero eta saio luze eta goxongoak egitera tritsi gara. Gainera, guzti honekin zera uste dugu: piskanaka bada ere, beste irakurtzeko era, ahotxa, erritmoa, ea... errespetatzen eta onartze bidean, etengabeko pauso txikiak ematen ari garela...

ETA ETXEA ZER?

Eta etxeak, lan hau nola borobildu? Zergatik ez bizi han ere, gurasoekin, alton-amonekin, horrelako esperientzi goxo eta atsegiria? Ondorengo aholkuelak horretan lagan dezakete:

•Haurra, lehen urtetik ipuinak harremanetan jarri. Txikitik ipuinak entzutea koment da. Ipuinak irakurri eta entzuten diren familietan hau-

rrak errezago zaletzen dira.

•Liburudendak, udal-biblioteka haurrekin ezagutu eta erabili, ipuinak bilatzen.

•Ipuinak, orokorrean liburuak, ez oparitu bakarrik egun seinalatuetan, arrunta-goa bihurtu erosteko ohitura hort.

•Ipuinak erosterakoan, onak erost, Hobe onak eta gutxi, txarrak eta asko haino.

•Ez fijatu hainbeste testuaren zailtasunean, ipuina jarraitu ahal izateko, ez da beharrezko hitzez hitz ulertzea. Aldiz, hitz **zail** horien ahoskapenak xarma eta interes berezia piz dezakete.

•Ilustrazio onak asko deitzenten dute.

•Gaurko idazleen ipuinak etaklasikoak irakurri eta kontatu.

Eta hau hola: bazan sardadila kalabazan etc irten dada Orroke plazar.



Itsas-Ondo
Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



13 11 79 (herrikoia)
83 39 61 (hondartzakoa)





EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Oraino honetarako aukeratu dugun fotografia duela berogei urte gutxi gorria beheri. Gertikari ateratako da. Orangoan **taldeko lau oriotarren izen-abizenak** asmatu behar ditunue.

Bigarren galdera: **Zenbat gizonezko dago Salatxo abesbatzan?**

Orain arte egin dugun bezala, afan bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean
Afanak: **Itsas Etxeko jatetxean** izango da.

Erantzunak **azaroaren 20rako** bidali behar diologuzue, helbide honetara:

KARKARA aldokara Ezetz ezagutu! lehiaketa, Hemko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karrara)

Aurreko ibazlea Nerea Etxeberrya Etxeberrya onotarra izan da.

Hau da eman zigun erantzuna: Juan Lizarralde, Klaudio Etxeberrya, Batista Oliden, Alejandro Oliden, Antonio Masterola, Inazio Genoba eta Antonio Mujika.

Bigurren galderaren erantzuna hau zen: Arkazpo Elkarteak 1953ko apirilaren 26an sortu zen.

Itsas Etxea

Jabe berriak

**San Nikolasetarako
dena prest izango
duzue!!!**

⑥ 13 34 15

DEMONOKRATIA EUSKAL HERRIARENtzat !!



HERRI BATASUNA



EUSKAL HERRIAren erakundearen spaldea.
HERRI BATASUNAren mahai nazionalaren aurkako erakunde ALTERNATIBA DEMOKRATIKOA hedatzegonitik,
Euskal Herri eta Espainiaren arteko gatazka gainditzeko BAKETIKO proposamena hedatzegonitik.

